

# PRINZIPITO

Antoine de Saint-Exupery

2. Argitalpena

ITZULTZAILLEA

OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ARGITARATZAILLEA

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR

TALDEA



# **PRINZIPITO**

**EGILEA**

ANTOINE DE SAINT-EXUPERY

**ITZULTZAILLEA**

OTAZUA TA ASUA 'TAR BENITO

**ARGITARATZAILLEA**

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

# AURKIBIDEA

I .....	11
II.....	12
III.....	15
IV.....	17
V.....	19
VI.....	21
VII.....	22
VIII.....	24
IX.....	26
X.....	28
XI.....	31
XII.....	33
XIII.....	33
XIV.....	35
XV.....	38
XVI.....	40
XVII.....	41
XVIII.....	43
XIX.....	44
XX.....	44
XXI.....	45
XXII.....	50
XXIII.....	51
XXIV.....	51
XXV.....	53
XXVI.....	55
XXVII.....	60

# PRINZIPITO

Leon Werthri Eskeintza


Adiñeko gizaseme bateri liburutxu au eskeiñi dautsadalako, umetxuei par-kamena eskatzen dautset. Aitzaki berezi bat dot: ludian dodan adiskiderik onena, adiñeko gizaseme au da. Beste aitzaki bat dot: gizaseme onek guztia, dana, ulertu leike: umetzuentzako liburuak tarte izanik. Irugarren aitzaki dot: adiñeko gizaseme au Prantzin bizi da, bertan gosez eta otzez da. Atsenaldi, poztasun premiñan da. Aitzaki guzti oneik naiko izango ez balitzez, liburutxu au, beste aldi baten adiñeko gizaseme au izan zan umetxuari eskeiñi nai dot. Adiñeko andra-gizon guztiak, danak, lenago, aurretik, umetxuak izan dira. (Baiña oso gutxik gogoratzen dabe). Nire eskeintza, ba, zuzendu, zintzotzen dot:

Leon Werthri  
Umetxua zanean.



*Bere alde-egite, bere iges-egitarako, basatxorien egazti-iragaite bateaz  
ballotu zala, uste dot.*





Umetxua nintzala, sei urte bete nebazala, «Historias Vividas» «Kondaira Biziak» eritxon liburu baten Oiandar Landu-gabeatzaz, buruz, sekulako irudi bat, bein baten ikusi neban, pizti bat iruditzen eban, boa-suge bat iruditzen eban. Ara emen marrazkiaren antz-irudia.

Liburuak olan iñoan: «Boa-sugeak euren arrapakiñak osorik, mamurtu-gabe, iruntziten dabez. Ondoren, jan ondoren, mugidu ezin diran ezker, sei ilebete luze egoste, eio-aldiak irauntzen dautsan bitartean, lo egoten dira. Lo egiten dabe».

Orduan, oian, basamortuko gertaldi, gal-zoriatzaz luzaro oldozkor nintzan, eta nire liburutxuaren margo bardiñeko arkaitz bateaz nire lenengo marrazkia tajutu al izan neban. Nire lenengo marrazkia olan zan.



Nire lan-bikain, sekulakoa, gizaki, adiñeko pertsoneri erakutsi, eta nire marrazkiak ikeratzen ba ebezan, itaundu, galdetu, neutsen.


Eurak erantzun eusten:

«Zergaitik kapel batek ikeratuko gaitu, ba?»

Kapel bat nire marrazkiak ez eban iruditzen. Boa-suge bat eain, egosten zan elefante bat iruditzen eban. Orduan gizaki, gizasemeak, ulertu al ekien, boa-suge baten barnea marrazkatu neban.

Azalpenak beti bear izaten dabez. Nire bigarren marrazkia olan izan zan:

Boa-suge iriki edo ertsiazkoak alde batera itxi, bazterturik, matematika ta zenbaki-kontuatzaz asko geiago arduratu naitela, adiñeko gizaki, pertsonak, bein eta barrero aolkatu ninduen. Onelan, sei urte nebazala, margolaritza buruzpide ospagarria baztertu bear izan neban. Nire lenengo ta bigarren marrazkiakaz uts, ondoren-txar, dala ta, osoz etsimendurik nintzan. Adidun



notin, pertsona adiñekoak eurak eure-tara ez dabe ezer ulertzen, eta ori, beti ta beti azalpenak esaten egotea, ume-txuentzat neketsua da.

Gertaera onen ondorioz langintza barri bat aukeratu bear izan neban, eta egazkiñak gidaritzen ikasi neban. Ludi osoan zear apur bat egaztu, egaz egin al izan neban. Geografi, bai egia da, balio-tsua, oso balio-tsua izan neban.

Txina Arizonagandik begiztatze bateaz berezkatu, ezagutzeko, gauza nintzan. Gabaz norbera zeiarikaten ba da, doe au oso balio-tsua izaten da.


Nire bizitza iragaitean, nire bizi osoan, ziñezko, deduzko notin, pertsona askoaz arremán, lotetsi ugari izan neban. Adiñeko gizakiakaz, pertsona adin-dunekaz sakontasunez bizi izan nintzan. Guztiz urbil ikusi dodaz. Eurakan dodazan eritxiak larregi ez dira aldatu. Norbait apur bat argi, buru argiduna, azkarra eritxi izaten jatana aurkitu dodanean, topatu dodanean, aldean neugaz beti daroadan nire lenengo marrazkiak azterketa bat egiten dot. Egiazki, benetan, adikorra ba zan jakin nai neban. Baiña beti erantzuten eustan: «Kapel bat da». Orduan ez boa-suge, ez baso landugabe, ez da be izarrat-zaz, buruz, ez neutsan itz, berba, egiten. Bere mailan ezarririk, bridge, golf, politika ta lepo-kibizte, korbatatzaz gure alkar-izketa jarduten zan. Gizon ain bidezko, zentzunduna ezagutu ebalako, gure adiñeko gizona guztiz pozik, alai geratzen zan.

## II

Onelan bakar-bakarrik, ziñez alkar-izketa bat nogaz egin izan barik bizi nintzan. Arik eta orain sei urte Sahara basamortuan «panne» bat izan arte, bakartasunik osoenean bizi nintzan. Nire motorrean zerbait apurtu, eten zan. Burni-arotz, mekanikari ez bidegilerik neugaz ez neban ezkeru, konpoketa, tresna ori berrizte oso zail bat egiten saiatu nintzan. Niretzat guztiz garrantzi-tsua zan. Niretzat nire bizitza, nire bizia egoan jokoan. Luzeenean ostaz-ostaz zortzi egunerako ura neukan.

Basamortuan, oilo-lurraldetatik aldendurik, lenengo gaba aree ganean lo egin neban. Gizabidedun gizarteagandik milaka-mila aldendurik, aree ganean lenengo gaba emon neban. Itxas-zabalean, itxas-galdua zure baten ganean dana baño be bakartiago nintzan. Iruditu eizu ba, nire arritasun, nire aridura, egun-sentian, eguzkiak bere argi izpiak ludi, mundua, argitzen dauan une beratan abostxu txiki, bigun, bakan batek izarturik, non entzuten dodan:





*Ara emen, geroago beratzaz egin lortu al izan neban marrazkirik onena.*

Mesedez... Bildots, arkume, bat marraztu eistazu! -Bildots bat marraztu eidazu- arren!.


Zer?

Bildots bat marraztu eistazu...

Argizpi, argi izpi batek eraginda bezela, bereala zutunik, zutik nintzan.

Begiak igortzi nebazan. Arretaz begiratu neban. Eta gizontxu arrigarri, ika-ragarri batek zearo, arduraz aztertzen ninduala, ikusi neban. Ara emen geroago beratzaz egin al izan neban marrazkirik onena. Baiña ziurki nire erruz. Sei urte nebazala, notin eta boa-suge ertsi ta boa-suge zabaldu, ide-giak, uts-utsean marrazkatzen ikasia nintzanean, nire buruzpide margolari-tzan urkuztu ninduen.

Begiak arritasunez konkorturik, begira ninduan, bai, agertaldi, agertzea. Oilo-lur, bizi-lurraldetarik, milaka mila gitxienez alenduta nintzala, ez dozue aitzu bear. Orrez ganera, ziroi, deslai, nekez ez josex, ez da bildurrez ilda be, gizontxu a ez jatan iruditzen. Basamortuan galdutako umetxu baten itxu-



rarik be ez eban. Azkenean itz, berba, bera-gaz egitea lorturik, esan neutsan.

Baiña, zer egiten dozu emen?.

Orduan, arazo garrantzitsu, ajoladuna izango balitz bezela, eztiki, maiteki, esan eban.

Mesedez... bildots, artxo bat marraztu eistazu...

Arazo, zador, bat ain erdiragarri, unkgarri danean, eskaria ez betetzea guztiz eziña da. Basamortuan milaka mila oilo-lur, gizarteagandik alenduta ta ilteko arrisku, zorian, naizta gizontxuaren eskaria burugabekeri utsa izan, jateko sakelerik paper eta iturluma bat atera neban. Geografi, kondaira, zenbaki-kontu ta gramatika bereziki ariskatu nebazala, konturatu nintzan, eta ilunkeriz gizontxuari marrazkatzen ez nekiala esan neutsan. Berak erantzun eustan:

Ez dau leba, ardurarik. Bildots bat marraztu eidazu. Sekula, iñoiz, artxo bat marraztu ez neban lez, uts-utsean marrazten nekiazan, marrazten gauza nintzan, bietariko bat, berrizatu neban. Boa-suge ertsia zan.

Gizontxuaren erantzuna entzutean, osoz arrituta geratu nintzan.

Ez! Ez! Boa-suge baten barnean, elefanterik ez dot nai.

Boa-sugea guztiz arriskutsua da eta elefante bat eragozgarria da.

Nire etxe, egoitzan dana da txikia. Artxo, bildots bat bear dot. Bildots bat marraztu eidazu.

Orduan marraztu neban. Gizontxuak arreta aundiz begiratzen eban. Ondoren esan eban:

Ez! Bildots au guztiz gaixoriok da. Beste bat egidazu.

Nik marrazten eban. Nire lagunak maitekiro, parkakiz irribarretxu bat egin eban.

Ikusten dozu?... Bildots bat ez da; arito bat da. Adarrak daukaz...

Barrero nire marrazkia barriztu neban.

Au zaarregia da. Luzaro bizirik irauan


dagian bildots bat gura dot. Orduan motor bat estrokatzeko leiatsu nintzan ezker, urduri, gizatxar, marrazki au zirri-marrakatu neban:

Eta laga neutsan;

Au kutxea da. Nai dozun bildotsa bere barnean dago.

Nire auzi-epailaren aurpegia alaitzen zala ikusirik, oso arrituta geratu nintzan:

Zeazkiro neuk nai neban bezelakoa da! Artxo onek bedar asko bear izango dauala, uste dozu?



Zergaitik?


Nire etxean, egoitzan dana txikia dalako...

Bear dozun aiñakoa izango jatzu, ziuarki, noski. Artxo, bildots, txiki-txikitxu bat opa dautsut.

Marrazkirantz burua makurtu eban:

Ez ain txikia... Begira, aditu eizul Lo geratu da...

Ara emen zelan Prinzipito ezagutu neban:



### III

Asti, denpora luzea bear izan neban nondik etorren jakiteko. Prinzipitok itaunka bakean ez ninduan itxiten, baiña berak nire galderak ez eban entzuten edo ez-entzun egiten eban. Nozean beinka, uste gabe iñoazan itz, berba batzukaitik, azkenean apurka dana jakin al izan neban. Nire egazkiña lenengoz ikusi ebanean, (nire egazkiña ez dot marraztuko, niretzat marrazki adikaitza dalako), esan eustan:

Gauza au zer da, izaki au zer da?

Gauza bat ez da. Egaz egiten dau. Egazkin bat da. Nire egazkiña da. Egaz egiten ebala jakin-azoaz guztiz arro nintzan. Orduan oiuka iñoan:

Zelan? Ortzi, zerutik jausi zara?

Bai, makalki esan neban.

Aaa! ze txantxelari...

Prinzipitok sekulako barre-zantzo bat egiñik, asarre-arazi ninduan. Nire zorigaitzak, zoritxarrak, ziñez, bene-benetan, artzea guztatzen jat.

Ondoren, jarraitu eban:

Orduan, zu be zerutik zatoz! Zein izarbeltezkoa zara?

Bereala, nire adimenean bere aurkezte miraritsuan argi izpi makal bat sumatu neban, eta lazkiro bat batean itaundu, galdetu neustan:

Orduan, beşte izarbeltz batetik zatoz?

Baiña bere erantzunik ez neban izan. Egazkiña begiratzen eban bitartean, bere burutxua makalki mugitzen eban:

Egia esan, onetan urrun, asao-asaotik, ezin izan zeinteke etorri...

Luzaro irauñ eban ames-zoro baten mur-



gildu zan. Ondoren sakelatik artxoa atera ta bere altxorratzaz so-egiten barneratu zan.

Beste «izarbeltzaz» egin eustazan erdi-ixilitzak zenbateraño kezka-arazi ninduen, asmatu, aditu eizue.

Apur bat geiago jakin gurarian, naian, alegindu, saiatu nintzan:

Nondik zatoz, gizontxu? Zure etxe, egoitza, non geratzen da? Nire artxotxua nora eroan nai dozu?.

Ixilki apur bat gogartu ondoren, erantzun eban:

Opa daustazun kutxatxua guztatzen jat, gabaz bere egoitza izango da. Ziurki. Eta Maitekor, adikorra ba zara, eta eguna irauntzean lotuta izateko soka bat be emongo dautsut. Eta taket bat be bai.

Nire adierazpena Prinzipitontzat ez zan izan bat be bere gustokoa:

Lotu? Ze burutasun ain bakana!

Baiña lotzen ez ba dozu, edozein lekutara joan eta galduko da...

Nire lagunak beste barre-algara bat izan eban.

Baiña nora gura dozu joan daiten?.


Edozein, edonun, tokira. Zuzen zuzen, artez artez, beti aurrera...

Orduan Prinzipitok zentzutasun osoz azterkatu eban:

Ez dau ardura, ez dau zer ikusirik! Nire etxea ain txikia da!

Eta bear ba da apur bat goibelki, jarraitu:

Zuzen, artez artez, norberan aurretik beti, asao asao ezin leiteke joan...



*Printzipito izarbeltz B 612 ganean.*

#### IV

Onelan bigarren zio garrantzitsu bat jakin al izan neban. Bere jaiotze izar-beltza, etxe bat baño aundiago ez zan:

Ez jatan izan bat be arrigarria. Izarbeltz aundienatatik, Lurra, Jupiter, Marte, Venus kanpo, oneik izan ezik, guztiak izendunak, eundaka izarbeltz, sarritan ain txikiak izanik teleskopioaz be ikusi eziñak egozala, ba nekian.

Astronumuak batan bat begistatzen dauanean, izan bezela, ezagutze nalan, zenbaki bat ezartzen dautsa. Adibidez, «izarbeltz 3251» deitzen dautza.

Prinzipito etorritzko izarbeltza B 612 zala siñesteko, errozoi, zio astunak dodaz. Izarbeltz au, 1909garren urtean astronomo Turkiatar batek teleskopioz bein uts-utsean ikusia izan

zan.

Nazio Arteko Astronomi batzarre baten, bere arkitze, begistatze buruz erakuzpide, azalpen txalogarria egin eban. Baiña bere jaskera dala ta, iñok ez eutsan siñistu. Adiñeko gizakiak olakotxeak dira.

Izarbeltz B 612'ren aipamen, ospea jaretsi naian, zorionez azkenean Turkiatar jauntzar batek, bere erritarrak europatar antzera jantzi eitezela, indarrez beartu ebazan. Bere agindua ez betetzen ausartzen ziranak eriotz-zigorrez zigorturik. Astronumuak 1920'an jaski guztiz dotore bateaz jantzita, azalpen barri bat egin eban. Eta orain bai, batzarkide danak ados ziran, beragaz, astronomoaz ados ziran.

Zeastasun guzti oneik, Izarbeltz 612 dala ta argitasun jakin-azo ta izarbeltz'en zenbakia zein dan jakin-azoteko, zuekan uste izan ba dot, adiñeko gizasemeakaitik izan da.

Adiñeko gizasemeak zenbakatzak maite dabez.

Lagun barri baten buruz, dirautsuzuenean premiazkoena, arazoen muiñagaitik ez dautsue iñoiz galdetuko. Iñoiz ez dautsue esaten:


«Bere abotsaren soiñu ozkera, zelakoa da?


Bere joko, jolaste bereziak zeintzuk dira?

Txirpilota, mitxeletak; bildu, pilotzen dauz?»

Ostera galdetzen dautsue: Zenbat urte dauz?

Zenbat anai-arreba dira? Ze astuntasun dau? Bere aitak zenbat eskuratzzen dau, irabazten dau?»... Orduan soiiki, uts-utsean, uste dabe ezagutzen dabela: Adiñeko gizasemei esaten ba dautsazue: «Buztin errezeko margo





gorridun etxe, egoitz, eder-eder bat, bere leio-  
ten zango-gorriak eta usoak teiletuan dauka-  
zuna, ikusi dot... etxea zelakoa dan ez dira iru-  
dituko. Bear bearrezkoa da esatea: «Eun mila  
franko balio dauan etxe bar ikusi dot...». Orduan bai, oikatuko dabe: Ze polit ederra dan!

Esaten ba dautsazue: «Prinzipito liluragarria zala, barre egiten ebala ta bildots bat gura izaten ebala, prinzipito ber-bera, izan zanaren siñispidea da. Bildots bat gura, nai, izatea, bizi dala adierazoten dau, bizi dala siñispena da», Bizkarra uzkuriturik, umetxu bat izango ba zarie bezela artukko zaitue. Baiña esaten ba dautsazue: Etorri izan nintzan izarbeltza ¿B 612? da», orduan nasai geratuko dira eta itaun, galdeketa geiago ez da izango. Olakotzeak dira. Ez dira alatu bear. Adifñekko gizasemeakaz, umetxuak, eurakaz biotz-samur bake zaleak izan bear dabe.

Baiña bai, argi dago, guk bizitza ulertzen dogunok, zenbakiak isekatzen doguz. Kondaira onen asiera mamu ipuin bat bezela izatea nai izango neban. Gura izango neban esatea:

«Bein baten, bera baño ia aundiago ez zan izarbeltz eta lagun bat premiazko eban prinzipito bat izan zan...» Bizia ulertzen dabenentzat askoz be ulerkorragoa izango zan.

Ba da nire liburua oar-gabe irakurtea ez jat guztatzen. Gogoketa oneik edestea ain mingarria dot! Sei urte bete dira nire adiskidea bere artxoagaz joan zala, aldendu zala. Emen gertaera au zeaztatzen saiatzen ba naz, beragaz aitzu ez naiten da. Mingarria da benetan adiskide bat aitzutea. Danak ez dabe izan adiskide bat euren bizian. Zenbakatzakaz uts-utsean arduratzen diran adifñekoen antzekoa biurto al izango nintzake. Kutxatxu bat margogai ta arkatzakaz orregaitik erosi dot. Barriro marrazkitza artu bear izatea, tamala da, batez be nire adifñez, sei urte ninduanean boa-suge ertsia ta boa-suge idegiatzaz egin nebazan saiaketa apal batzuk kontuan izanik. Ain zuzen be aurrerantzean marrazkiak alik antzekoenak egiten saiatuko naz, aleginduko naz. Ondoren oso ona izango dodala, ez naz guztiz ziur. Marrazki bat dot, eta urrengo antzeratuago da. Goi-beatan be apur bat uts egiten dot. Onetan prinzipito golegia da. An, aretan txikiegia da. Bere jaski, jantziaren margoz be zalantzan naz. Orduan, ondo edo txarto, era batera edo bestera, saiatzen naz. Garrantzitsuenak diran zertzelada zeetasun, batzukaz be, uts egingo dot. Baiña parkatu bear jat. Nire laguna-kandik azaltasunik ez zan entzuten. Bear ba da, bere antzeko, irudikotzat ez ninduan artzen. Baiña nik zoritxarrez, kutxatxuak zear artxoak ez dodaz ikusten. Adifñeko gizakien antzekoa naz, urrean. Zaarkotxotu egin bear izan naz.

Izarbeltz, igesaldi ta bidaliatzaz, egunero zerbait, zeezer, barria nekian. Astiro astiro, geldiro geldiro, gogoketa bidez, barriak argitaratzen dira. Irugarren egunean baobasen gertaera lazgarria jakin neban.

Bildots, artoxaren, bidez izan zan; ardurazko zalantzak eraginda bat-batean galdetu eustan:

Egia da, ez da egia, artxoei zartakak jatea guztazen jakela?

Bai, egin da.

Aaa! Ze poz-alai nazan!

Artxoak zartakak jatea ain garrantzitsua zan. Zergaitik zan ain garrantzitsua, ezin izan neban ulertu. Baiña prinzipitok jarraitu eban:

Orduan, antza danetik, baobas'ak be jaten dabez?

Baobasek zartakak ez zirala prinzipitori jakin-azo neutsan. Eleizak bezelako zugaitz aundi, itzalak, zirala, ta naizta beragaz elefante aldra bat eroango baleu, tropela baobats battxu bat be puskatzeko ez zala gauza izango.

Elefante tropel baten burutaldia prinzipitok barre algaraz artu eban.

Bata bestearen ganean ipiñi, jarri, bearko litzakez...

Eta jakituriz begiztatu eban:


Baobasek, aundiak izan baño lenago, txikitatik, txikiak izatetik asten dira.

Egia da! Baiña, zergaitik nai dozu zure artxoak baobas txikiak jan dagizan.

Erantzun eustan: Ederto! Ondo dago! siñisgarria bertan izango balitzake bezela. Arazoa neu-neugandik ulertu al izateko, sekulako adimen senperrenak ebin bear izan nebazan.

Alan zan, prinzipiton izarbeltzen, izarbeltz guztietan bezela, bedar onak eta txarrak egozan. Azi onen ondoren bedar onak eta azi txarran ondoren bedar txarrak izanik. Baiña aziak ikusi eziñak dira. Arik eta euratariko bateri izartu, ernatzea bururatu arte, lurraren eskututzean lo egiten dabe. Orduan luzatzen da, lenengotan makalki, gaitz-gabedun burdats, izpi liluragarri batek ortzi, zerurantz igoten da. Landara kalte-garri bat euren artean ba da, ezagutua izan dan une ber-beratan bereala zuzterkatu bear da. Prinzipiton izarbeltzen ale, azi, lazgarri, izugarriak egozan. Baobabs-azi, aleak, ziran. Isarbeltz'en lurra guztiz kutxatuta egoan. Eta baobab bat sasoiz zuzterkatzen ez ba da, beragandik asagotzea eziña da, buztiz eziña da. Izarbeltz osoa indarrez beragantzen dau.

Bere sustraiakaz zastatu, zulatzen dau. Eta izarbeltza txikiegia ba da eta baobastarrak






geiegi ba dira, leertu, zapar-  
tatu, egiten dabe.

Araubide utsa da, araubide  
arazoa da... «Goizean norbera  
apaindu, jasekotzen danean,  
izarbeltz'aren garbikuntz zear  
bat egin bear da. Gaztetxuak  
diranean. Baobabs'ek gazte-  
txuak diranean larrosan guztiz  
antzekoak dira, eta larrosa  
artean ezagutu, ikusten dira-  
nean, une beratan, baobas'ek  
zusterkatzen geien bat saiatu  
bear da. Lan bear, guztiz  
azpergarria da, baiña guztiz  
erreza».


Nire lurraldeko umetxeen  
burutxuetan ondo ezarria izan daiten, egun baten, beiñola, marrazki polit-  
eder bat egiten arduratsu saiatu naitela, aolkatu ninduan: «Noiz baten txan-  
golariak ba dira, iñostan, ballotsuak izan eitekezan. Sarritan lana geroagorako  
bartzetzeko eragozpenik ez da izaten. Baiña boabasetzat ba da, beti izuga-  
rria izaten da. Alper bat bizi zan izarbeltz bat ezagutu neban. Iru zartaka  
ardura-gabetu ebazan...».

Prinzipiton argitasunak jarraituz, izarbeltz a marrazkitu neban. Zuzentasun  
tankera iruditzea ez jat guztatzen. Baiña baobas'en galbidea ain gitxi eza-  
guna, ta beste alde batetik izarbeltz baten zeiarikatzen danaren arriskuak ain  
izugarriak izanik, bein baño ez ba da be, nire oituratik aldatzen naz. Eta diñot:  
«Umetxuak». Baobas'kaz kontuz! Neu bezela, jakin gabe, antziñatik zelatzen dan  
arriskuagandik nire adiskideak aintzindu naian, marrazki onetan ain arduraatsu  
saiatu naz. Beraz nire ikaskai au kontuan izateko da. Bear ba da galdetu, itaunduko  
dozue: Liburu onetan beste marrazki batzuk zergaitik ez dagoz, boabas  
marrazki aiñako aundi-eder, berezikoak? Erantzun guztiz, oso. Erreza da: Egiten  
saiatu naz, baiña kausitze, ondoren on gabe. Boabas marrazkitu nebazanean,  
leia, premiatasunak eragin ninduan.



*Baobabs'ak*





## VI

Aaa prinzipito! Onelan, apurka apurka zure bizitza txiki, goibel, beltza, ulertu neban. Luzaro zure jostaldi bakarra, eguzki-sarreraren ontzatasun, eztitasuna zan. Zeaztasun barri au, laugarren egunean goizean jakin neban, esan zeustanean:

Eguzki-sarrerak niretzat liluragarriak dira. Eguzki-sarrera ikustera goazen...

Baiña itxaron bear dogu...

Itxaron zer?

Eguzkia sartu daitela, itxaron.

Lenengotan oso arrituta iruditzen ziñan, gero, zeure buruz isekaz barre algara bat egin zenduan. Eta esan zeustan:

Nire etxean nazala, beti uste izaten dot!

Olan da. Luditar danakaitik jakiña da, Estatu Batuetan eguerdia danean Frantzin eguzki-sarrera dala. Frantzira minutu baten joatea naiko izango litzake, bertan eguzki-sarreraaren aurkezalea izateko. Baiña zoritzarrez Frantzi urrun, asaoegi dago. Baiña zure izarbeltz txikian, zure aulkia oinkada batzuk mugitzea naiko izango zeunke. Zeuk nai zenduan bakoitzean ozkorri-aldiak zo-egin daikezu.

Eguzki-sarrera egun baten berrogeta lau bider ikusi neban.

Apur bat geroago jarraitu zenduan:

Ba dakizu? Bat, norbera, oso goibel aurkitzen danean, ozkorri-aldiak poz-erazleak izaten dira...

Berrogeta lau bider ikusi zenduanean goibel zengoan, goibel aurkitzen ziñan?

Prinzipiton erantzunik ez zan izan.



## VII

Bostgarren egunean, beti artxoari esker, prinzipitoren biziatzaz zan izkutu au jakin-arazi jatan. Luzaro isilki oldoztuko arazo baten ondorena lez, aintzin-solas gabe, bat batean esan eustan:

Artxo batek zartakak jaten ba dauz, lorak be jaten dauz?

Artxoak aurkitzen dauan dana jaten dau.

Arantzadun larrosak be bai?

Bai, dana jaten dabe, arantzadun lorak tartean izanik. Orduan arantzak zertarako balio dabe? Zertarako dira gauzak?

Nik ez nekian. Mea, doiegi, egoan nire motorraren biurkin bat biuritzaraten arduratsu saiatzen nintzan, kezkatu, nire «panne» nekezko, ardura-



tsua biurtzen abiatu zan, ganera edatekko ura ia amaitzen zala ikusirik, ondoren kaltegarri, izugarriena nabaritzen neban, eta leba barik, oldoztu gabe, erantzun neutzan.

Arantzak ezetarako ez dira gauza. Loratzuen kaltegai utsak dira.

Ooo!

Ixilaldi labur baten ondoren, gorrotozki esan eustan:

Ez dautsut siñisten! Loratuak makalak, bigunak dira. Toles-gabeak dira. Al daben lez babesten dira. Euren arantzak dirala ta, izugarriak dirala uste dabe.

Ez neutsan erantzun. Une aretan neure baitan niñoan:

«Blurkin Zoragarri onek amor emoten ez ba dau, mailukadatzar bateaz konponduko dot». Nire oldozketak barriro prinzipitok eten ebazan.

Eta zuk, zuk uste dozu nire lorak...?

Baiña ez! Baiña ez! Nik ez dot ezer uste! Ardura-gabez, bakanki erantzun neutzun. Ni arazo zendo, ajoladunatsuagoa-kaz saiatzen naz!

Oso arrituta begiztaten eustan.

Arazo arduradunak!

Eskuetan mailu bat eta atzamarrak koipez baltziturik, oso itsusia iruditen jakon, zerbaiten ganean makurtuta ikusten ninduan.

Adiñeko gizakiek bezela itz, berba, egiten dozu!

Apur bat lotsatu ninduan. Baiña errukigabe jarraitu eban:

Dana naspiltzen dozu! Dana naastatzen dozu!

Bene benetan oso asarre egoan. Bere ule, ile, urre margodunak aizetzen ebazan.

Zaldun gorri-gorri bat bizi dan izarbeltz bat ezagutzen dot. Lora bat iñoiz arnasatu ez dauana. Sekula izar bat begiratu, aditu, bakoa. Iñoiz ez dau iñor maite izan. Kopuruketak eta zenbaketak izan ezik, beste ezer ez dau iñoiz egin. Eta zuk bezela egun osoan bein eta barriro esaten dau: «Gizon zintzo, ziñezko bat naz. Gizon zintzo, ziñezko bat naz!». Arrokeriz zagotzen da. Baiña ez gizakia, perretxiko bat da? Zer bat?

Perretxiko bat!

Une onetan prinzipito asarre bizi-bizian, zurbil egoan.

Miloaka urte dira loratan, loratik, arantzak sortzen dirala. Bardin miloaka urteak artxoak lorak jaten dabezela. Sekula, iñoiz ezetarako gauza ez diran arantzak sortzen lorak zergaitik aleginduten diran jakitea zuzenezko ez litzake izango? Artxo ta lorak daben alkar-borroka ez al da garrantzitsua? Jaun lodi, margo gorridun baten zenbaketak baño garrantzitsuagoa ez da? Nire izarbeltzan izan ezik, ludi, izadi osoan ez dagon loratu bakar bat ezagutu, ta goiz baten artxoak zartada bateaz, bere egikisuna iñori adierazo-gabe, txistu baiño ariñago, ezerestu leikela, ez da garrantzitsua? Au, ez da garrantzitsua?

Gorrizkaturik, jarraitu eban:

Milloi ta millika izarren artean dagon, lora bakarra norbaitek maite ba dau, izarrek begiratzea zio naikorik izango dau zoriotsua izan daiten. Onek bere

baitan diño: “Nire loratxua an dago... toki anbaten...” eta artxotxuak loratxua jaten ba dau, berantzat izar guztiak, danak, lazkiroz amatauko balitzakez bezela da. Eta au, ez da garrantzitsua?

Geiago ezin izan eban esan. Lazkiro bat-batean negarrez asi zan. Gaba iluntzen zan. Neure tresnak laga, itxi, izan nebazan. Mailu ta biurkiñak ezeze egarri ta eriotzeak be ez ninduan arduratzen. Izar baten, izarbeltz baten, nirean, Ludian, pozgarri, alaitasuna leiaz bear eban prinzipito bat egoan, bizi zan. Neure besoetan arturik. Seaskatu neban. Esan neutsan: “Maite dozun loratxuak ez dau arriskurik... Zure artxotxuentzat mutur-aul bat marrazkituko dot. Zure loratxuentzat soin-burni bat marrazkituko dot. Esan...” Ez nekian artzez zer esan. Trakets, baldar sentitzen nintzan. Beragan zelan urreratu, bildu non aurkitu... ez nekian. Negar-malko erria ain misterioitsua da!

## VIII


Lora ori ezagutzen, guztiz leiatsu ikasi neban. Prinzipiton izarbeltzan lora arrunt, ergelak lora-osto bakar bateaz apaindurik, ia tokirik bete gabe ta iñor nekarazi barik, lora oso arruntak betirik egon ziran. Bedar, belar, artean goiztik agerturik, iluntzean iraungitzen ziran. Prinzipitok ez dakigu nondik ekarritako azitxuaren ernekatzak eguzkiaren argi-izpiak agurtzen saiaturik, beste kimuen antzik ez eban zotza arduratsu zaindu, jagon izan eban. Bao-bab mota barri bat izan eitekean. Baiña zartaka a beingoan bera azitze ete-nik, loratxu bat lantzen saiatu zan. Prinzipitok lora-kuskutzar itzel baten egi-kera ikusirik, mirarizko agertzen bat izango zala sentitzen eban, sumatzen eban. Baiña bere nini orlegi, babespen, abaropean, bere apainketa gertu-lanak ez ebazan amaitzen. Bere margoak arreta aundiz aukeratzen ebazan. Geldiro-geldiro, esarian apainduz, bere erbatzak banan banan egogituz. Mikoletak aiñan zimirki agertzea ez zan bere gurari, naia. Bere polit ederta-

sunaren ekaiñean agertzea nai eban. Aaaa! bai! Oso gizakoi, goiz-oilanda zan! Bere izkutuzko apaiketak, egunak eta egunak iraun eben.

Ara emen, zelan goiz baten, zuzen be egun-sentian, eguzkiak bere argi-izpiakaz ludia alaitzen eban une beratan, agertzen dan.

Zeaztasunez landu zan loratxuak, arrauzi azpergarri bat egiñik, esan eban:

Aaa! Esnartu barria naz, unetxu onetan izartu naz... Parkatu eistazue... Artzi, zapazaturik nago ondiño...



Prinzipitok orduan bere txundio, arritzea ezin izan eban geldi-arazi.

Ze polit-ederra zaran!

Egia ez da? Makalki loratxuak erantzun eban.

Eguzkiak batera sortua izan naz...

Prinzipitok, xume, apaltasun geiegi gabedun ez zala aurretizik jakinarazi eban, baiña ain erdiragarria zan!...

Gozaltzeko ordua dala, uste dot, loratxuak bereala jarraitu eban. Ni zure gogoan izateaz, adikor izango zintzakez?.

Eta prinzipito, lotsez nastuta, garastontzi bat ur

ozkirri bilatuz, une baten laratxuen morroi izan zan, urestatu eban.

Bere arrokeri iluna dala ta, olan beingoan mindu, oiñazetu eban. Adibidez, esate-baterako, egun baten lau arantza buruz, lau arantzatzaz, alkarizketa zirala, prinzipitori esan eutsan:

Katamotzak euren atzapar, erpakaz, etorri daitekez, bai!

Nire izarbeltzen katamotzik ez dago, prinzipitok erantzun, eta ganera katamotzak bedar,



belarrrik ez dabe jaten.

Ni bedar bat ez naz, loratxuak makalki esan enan.

Parkatu eidazu...

Katamotzen bildurrik ez dot, baiña aize-zurutzek izu-araziten nabe. Aize-geritzarik ez dozu eukiko, ez?.




"Aize-geritzak izu-arazitea... Aize-geritzak izuri-arazite... prinzipitok bere baitan iñoan, landareantzat zorion bat ez da... Loratxu au naiko, adigaitza da..."

Gabaz puxika baten barnean sartuko nozu. Emen otz izugarria da. Erotasun urria da. An, ni natorrene-tik...

Baiña geldi-arazitu zan. Aziaren itxuraz etorria izan zan. Beste ludi, munduetako ezer ezin izan eban ezagutu. Guzur ain toles-gabe bat apaintzen uste-gabe azarkaturik, burua makurtuta, prinzipito argi-argitan ipiñi naian, estul bi edo iru egin eban.

Eta aize-geriza?...

Bereala bere bila ninoian, baiña nigaz izketan zegoazan lez!...



Orduan loratxuak eztula ertsatu eban, beragan kezka geiago ondiño sortuazo.

Onelan, naizta bere maitasun gogo ona izan, prinzipito, bereala beragan zalantzan izan zan. Ajolagabedun itzak gogo osoz arturik, guztiz doakabe, zorigaiztokoa sentitzen zan.

“Jaramonik ez neutsan egin bear izan, egun baten, bein baten, entzindu eustan: loratxuei ez jake iñoiz jaramonik egin bear. Begiratu, aditu, ta euren lurrin, usain gozoaz gozatzen saiatu. Nireak neure izarbeltza lurrintzen eban, baiña aregaz ez nintzan zoriontsu, atsegintsu. Ain beste nekarazi ninduan erpa-kondairak, biotz-samur, urrikaldu nauala, uste dot...”.

Eta onelan entzindu ninduan:

Orduan ez neban ezer ulertzen. Bere egikisun, egiteak eta ez bere itzakaitik, epaitu bear izan neban. Berak errainitu ta lurrintzen ninduan. Ez neban iñoiz, sekula, igesik egin bear izan! Bere maltzurkeri epel, ganorabako guztien ganetik, bere biotz samur, bere ixurpena sumatu, kausitu bear izan neban. Baiña lorak ain ezbidezkoak dira!. Baiña ni gazteegia nintzan bera maite al izateko.

## IX

Bere iges-egiterako, basa-txori anbatan egazti-joaiteaz baliatu zala, uste dot. Iges egin, aldatu zan goiz beratan bere izarbeltza bereziki antolatu eban. Bizkorturik, bizirik, ziran sumendiak arretaz kedar-kenduta. Sumendi bi egikor ebazan. Goizean gozaria berotzeko oso egokiak ziran. Sumendi amatau bat be ba eukan. Baiña prinzipitok esaten eban bezela, iñoan bezela, “iñoiz ez da jakiten”!. Sumendi etenda egoena be, amataua be, kedar-kendu eban. Sumendiak poliki kedar-kentzen ba dira, arauz, anbatean eta geldiro-geldiro sutan izaten dira, eztanda, su-jauzi gabe. Sumendi eztanda, zu-jauziak, kezuloko sua bezelakoak dira. Argi dago, gure izarbeltzan gure sumendiak kedar-kentzeko, txikiegiak gara. Orregaitik larregi nekaraziten gaitue.

Prinzipitok, baobabs'en azkenengo kimuak apur bat goibelki, zusterkatu ebazan. Sekula ez zala itxuliko, uste eban. Baiña eguneroko lan guzti oneik, goiz aretan oso atsegingarriak izan jakozan. Azkenengo loratxua urestatu ta bere izarbeltzen babespean ezartzen salatzen zanean, negar egiteko gogo bizi-bizia ebala nabaritu eban.


Agur, loratxuari esan eutsan.

Baiña loratxuaren erantzunik ez eban izan.

Agur, bein eta barrero iñoitsan.

Loratxuak eztule egin eban. Baiña ez gorbese zalako.

Ergel, tentel bat izan naz, azkenean esan eutsan. Parkatu eidazu. Zoriontsua izaten saiatu zaitze. Akartze, alatze-ezagaitik oso arrituta geratu zan.



Sumendi bizkor, biziak, arretaz kedar-kèndu ebazan.

Bere eskuetan puxika eroala arriturik, kezkatu, bertan geratu zan. Ontzatasun bare a ez eban ulertzen.

Baiña, bai, maite zaitut, loratxua, esan eutsan. Nire erruz ez dozu ezer jakin. Ez dau lebarik, ez dau ardurarik. Baiña neu aiñako ergel, leloa, izan zara. Zorionsua izaten saiatu zaitetz... Puxikatxua baketan itxi eizu, utxi eizu. Ez dot geiagorako nai.

Baiña aizea...

Orren besterañoko gorbezi ez naz... Gaueko aize ozkirria ondo etorriko jat. Lora bat naz.

Baiña abereak...

Mikeletak, txirpilotak, ezagutu gura ba dodaz, mamarro bi edo iru jasan bearo dodaz. Ain polita dirudi! Bestela, ikustaldi bat egitera nor etorriko jat? Urrunki ez zara egongo. Abere aundiatzaz, ez dautset bildurrik. Neure erpak daukadaz.

Eta bere lau arantzak toles-gabe erakutsi ebazan. Ondoren jarraituz:

Geiago ez zatitez geratu, nekarazi da. Aldatzea erabagi dozu. Joan zaitetz.

Ez eban nai, gura, negarrez ikustea. Ain lora arroa zan...

## X

Izarbe 325, 326, 327, 328 eta 330 erri-alde lurraldetan aurkitzen zan. Asi zan ba ikustaldiak egiten geien bat, zeregin bat bila ta geiago ikasi naian.

Lenengoa errege baten egoitza zan. Erregea, janzkorri ta armiñoz jantzita, errege-aulki berezko, apain gabe izan arren, alan ere itzaltsua zan.

Aaa! Ara emen menpeko bat, prinzipito ikusi ebanean erregeak esan eban, oiuka iñoan.

Eta prinzipitok bere baitan iñoan:

Zelan ezagutu al izan ete nau, lenago iñoiz, sekula ikusi ez ba nau?

Erregeentzat ludi, mundua, guztiz bakandua dala, ez ekian. Gizaseme guztiak menpeko dira.

Aurreratu, urbildu zaitetz, obeto ikusi zaidazan urbildu zaitetz, azkenean norbaiten erregea zala uste izanik, erregeak arro-putz esan eutsan.

Prinzipitok nonbaiten toki bat jezartzeko begistatzen eban, baiña izabertza armiñozko txabux liluragarri bateaz estalduta egoan. Zutik, zutunik ba geratu bear izan eban, eta nekatuta zan ezkerre arrausika asi zan.

Errege baten aurrean arrausika egotea, jai-arau aurkakoa da, erregeak esan eutsan. Eragotziten dautsut.

Gabendu eziña dot, prinzipitok lotsez, naastuta erantzun eutsan. Bidali guztiz luze bat egin dot eta ez dot lorik egin...

Orduan, erregeak esan eutsan, arrausika saiatu zaitetzala aginten dautsut.



Urte luzeak dira norbait arrausika ikusi dodala. Arrausiak niretzat jakin-min bat dira. Ala! Barrero egin eizu arrausi. Agindu bat da.

Orrek izu-arazten nau... ezin dot... aurpegia gorri-gorri ebala, prinzipitok esan eban.

Arraio! Arra...! erregeak erantzun. Orduan... arrausi edo ez arrausi... agintzen dautsut.

Itzak murduzkatuz asarre, suminduta dirudian.

Bere aginte, aginduak, betetuak izan eitezela, erregeak bereziki beartzen eban. Menik-eza, biurkeria ez eban zilegiten. Alosodun erregea zan. Baiña oso ona zan ezkerro, bere aginduak errozoizkoak ziran. "Agintzen ba dot, arrunki iñoan, general bat Itxas-egazti biurtu daitela agintzen ba dot, eta generalak men egiten ez ba dau, generalaren erruz ez da izango. Neurre errua izango da".

Jezari neiteke? prinzipitok bildurki esan eban, eskatu eban.

Jezari zaitezela agintzen dautsut, amiñozko txabux, soingainezko gona aundi bat ospatsuki batzen ebala, erregeak erantzun eutsan.

Prinzipito arritu zan. Izarbeltza guztiz txikia zan, xume zan.

Zertzaz, nortzukan erregeak agindu leike ba?.

Sire... itaun, galdeketa egin dodalako, esan eutsan, parkatu bedi.

Galdetu daizula agintzen dautsut, bereala erregeak esan eban.

Sire... nortzukan agintzen dau ba?

Dana dot menpeko, erregeak bakuntasunez erantzun.

Keñu sotil, zur bateaz, erregeak bere izarbeltz, eta beste izarbeltz eta izarrak erakutsi ebazan.

Guzti ori da beroren menpeko? prinzipitok esan eban.

Guzti orren agintari naz... Erregeak erantzun.

Errege alosoduna ez eze lur zabaleko erregea be ba zan.

Eta izarrak be beroren menpekoak dira?.

Bai ziurki, erregeak



esan eutsan. Nire aginduak bereala, beingoan, betetzen dabez. Men-gabeta-suna ez dot zilegiten.

Almen ain izugarriak prinzipito konkortu eban. Berak aitzikitu ba eban, aulkia sekula mugido bear izan gabe, berrogeta iru ez, ez da irurogeta amabi be, edo eun edo berreun eguzki-sarrera aurkeztu al izango zan!. Eta bere izar-beltz txiki baztertua gogoratuz apur bat goibel aurkitzen zan ezkerero, erregea-gandik mezedo bat eskatzen ausartu zan:

Eguzki-sarrera bat ikusi nai, gura, neuke... Nire guraria egin bedi jauna... Eguzkia sartu daitela, agindu eizu...

General bateri, mikeleta, txirpilota, bat bezela lorarik lora egaz egin dagiala, edo izu-antzerki bat idatzi dagiala, edo itxas-egazti bat biurtu daitela, agintzen ba dauosat, eta generalak ez ba dau betetzen nire agindua, norena, berana ala nirea, izango litzake utsa?

Berorena, prinzipitok sendo, gogor esan eban.

Zuzena da. Bakoitzaren jokaera al daben aifian egiten beartu bear da. Itxasora euren buruak jaurti dagiezela, gizarteari agintzen ba dauasazu, matxinada, asalda bat egingo dabe. Nire aginduak zuzenak, deduzkoak, izanik, menpekotasuna eskatzeko eskubidea dot.

Eta nire eguzki-sarrera? prinzipitok erantzun. Egiten eban itaun, galdera bat sekula be ez jakon aitzuten.

Eguzki-sarrera bat izango dozu. Eman-araziko dot. Baiña agintari jakitunari dagokionez, giroa egoki, egun egokia izan arte, apur bat itxaron bearko da.

Egun egoki, giro ongarria, noiz izango da?, prinzipitok azterkatu eban.

Jen! Jen!. Eguntegi lodi-lodi bat azterkatu ondoren, erregeak esan eutsan, ez dakit ba! ez dakit ba!... seiretan izango da... jen! jen!... tan... jen! jen! gaur gabean zazpirak lauren gitxiagotan izango da!. Eta nire aginduak zelan betetzen diran, ikusiko dozu!

Eta prinzipito arrausi egin eban. Eguzki-sarrera begistatu ez ebalako adiakatzen zan. Eta apur bat gogaitzen zan ezkerero:

Zer egingelagorik ez dot emen, erregeari esan eutsan. Abiatu bear naz!

Ez zaitetz joan, menpekodun errege bat zala ta oso arro zan erregeak, erantzun eutsan:

Ez zaitetz aldendu, iñorantz ez zaitetz abiatu, ministro egingo zaitut.!

Zeren ministru?.

Ko... zuzendaritzako!

Baiña ez dago nor epaitu!

Batek ez daki iñoiz, erregeak esan eutsan. Nire errisuma ondiño ez dot begistatu, ikusi. Oso zaarkotxo naz, saldi-burdi batentzat ez dot lekurik, eta oiñez igaroten, nekatzen naz.

Ooo!, baiña nik ikustatu, ikusi, dot, izarbeltzaren beste aldera, aurre-aurrezko aldera burua agertuz, prinzipitok esan eban. Bertan, an be ez dago iñor, bertan be ez...

Zeure burua epaituko dozu, erregeak erantzun. Zail, gaitxena da. Beste

batzun, lagun-urkoa epaitzea norbera epaitzea baño askoz be zail, gaitxagoa da. Zeure burua ondo epaitzea lortzen ba dozu, bene-benetan oso jakintsua zara.

Nik, prinzipitok esan eban, neure burua edozein leku, tokitan, epaitu daiket. Emen bizitzerik bearzanean ez naz.

Bai bai! Bai bai!, erregeak esan eban. Izarbeltz onetako toki anbatan arratoi zaar bat dagola, uste dot. Arratoi zarra epaitu zeinke, epaitu daikezu. Aldizka aldizka eriotuko dozu. Orrelan bere bizitza zure zuzentasun-pean izango da, "nik zuzenkeripean, esango neuke".- Baiña bere jabe izateko lantzean-bein azketsiko dozu. Bat baño geiago ez dago.

Baiña niri erio-zigorrik ezartzea ez jat guztatzen, prinzipitok erantzun eban. Uste dot, ba noala.

Ez, erregeak esan eban.

Errege altsu orrek berorren menpeko izatea nai, gura, ba dau, zeazki erro-zoizko agindu bat emon bear litzaket. Agindu lei, esate baterako, adibidez, minutu bat baño lenago aldendu naitela. Baldintzak erako, ongariak dirala uste dot...

Erregearen erantzunik izan ez eban lez, unetxu baten zalantzan izan ondoren intzirik abiaturik, aldendu zan. Errege-ordari, enbajadorea, izandaturiko zaitut, oiuka, leiatsu erregeak iñotsan.

Larderidun aurpegi itxura, tankera eban.

Notin, pertsona, adiñekoak oso bakanak izaten dira, bidalian jarraituz bere baitan prinzipitok iñoan.

## XI

Bigarren izarbeltzan arro, andiputz bat bizi zan.

Aaa! Aaa! Ara emen arduradun, administradore bat!, urrunetik prinzipitok ikusi orduko, arroputzak oiuka iñoan.


Egia da, arro, arroputzentzat, beste gizaki guztiak, gizon guztiak, ardura-dunak dira.

Egun on, prinzipitok esan eban. Ze kapel bakana daukazu!

Agurtzeko da, arroputzak erantzun. Goratu, txalotu egiten nabenean agurtzeko da, emendik iñor be ez da igaroten.

Aaa, bai?, ulertu gabe prinzipitok esan eban.

Alkar-jo eizuz zure eskuak, arroak aolkatu eban.



Prinzipitok bere eskuak alkar-jo ebazan, bata besteagaz.

Arroputzak bere kapela jasorik, erabidez agurtu eban.

Au erregea ikustera joatea baño askoz alaiagoa da, bere baitan prinzipitok iñoan. Eta barriro bere eskauk alkar-jo ebazan. Arroputzak barriro bere kapela jasorik agurtu eban.

Bost minutu luze ariketa onetan jarraiturik, prinzipito jostaldi onegaz nekatuta zan:

Eta zer egin bear da kapela jauzi ez daiten? itaundu eban.

Baiña arroputzak ez eutsan entzun. Arroak euren gorespenak uts-utsean entzuten dabez.

Bene-benetan, guztiz ederretziten nozu?, prinzipitori itaundu, galdetu eutsan.

Ederretsik zer esan gura dau?

Ludiko gizonik eder, jasekoenez jantzita, aberats eta jakitunena nazala onartzen dozula, esan nai dau.

Baiña izarbeltzén bizi dan notin, pertsona, bakarra ba zara!

Atsegindu naizu!. Bardin-bardin ederretsi naizu!

Ederretsitzen zaitut, sorbaldea jasoz, prinzipitok esan eban. Baiña nik ederretsita, zergaitik da zuretzat garratzitsua, ardurazko?.

Eta prinzipito aldendu zan.

Gizaki adiñekoak benetan dira bakanak, prinzipitok lañoki bidalian jarraituz, bere baitan iñoan.

## XII

Urrengo izarbeltzan ardao-zale bat bizi zan. Ikustaldi au guztiz laburra izan zan, baiña prinzipito istasun izugarrian murgildu eban.

Zer egiten dozu or? bonbila uts eta beste bonbila bete baten aurrez aurrez, ixil ixilik zan gizona itaundu, galdetu eban.

Edan, goibel, itzaltsu zan ardao-zaleak erantzun.

Zergaitik edaten dozu?, prinzipitok itaundu eutsan.

Aiztuteko, aiztu naian, ardao-zaleak erantzun.

Zer aiztuteko, aiztu naian?, beragaz, edalariaz, errukitzen zan prinzipitok aute-emaletu eban.

Lotsa dodala aiztu naian, burua makur ardao-zaleak autortu eban.

Zeren lotsa? lagundu naian, azterlari prinzipitok esan eban.

Edateaz lotsatuz!, erabat ixiltasun mingarrian barneratuz, ardao-zaleak eten eban.

Eta prinzipito kordoka, kezkatu, aldendu zan.

Bene-benetan dira bai, adiñeko gizakiak oso bakanak, bidalian jarraituz, prinzipitok bere baitan iñoan.

## XIII

Laugarren izarbeltz gizon garazlari batena zan. Gizona ain arduraturik egoan ezkeru, prinzipito eldu zala be ez zan konturatu. Bere burua mugidu be ez eban egin.

Egun on, garazlariak, esan eban. Zure errekiña amatauta dago.

Iru ta bi bost dira. Bost eta zazpi, amabi, amabi ta iru amabost. Egun on. Amabost eta zazpi, ogeta bi. Ogeta bi ta sei, ogeta-



zortzi. Barrero biztuteko ez dot astirik. Ogeta sei eta bost, ogeta amaika. Uf! Guztitara, ba, bosteun miloi seireunde ogeta bi mila zazpireunde ogeta amaika.

Bosteun miloi zerenak?.

Zer? Beti zagoz or? Bosteun miloi zeren... Orain ez dakit... Lan, bearrez zamatuta naz!. Gizon zuzen, deduzkoa naz, ergelkeriakaz ez naz jolasten. Bi ta bost, zazpi...

Bosteun miloi zerenak?, barrero prinzipitok iñoan. Bein egiñik, itaun bat egiñik, prinzipitok bere bizian ez eban bertan-utxi, baztertu.

Gizon garazleak bere burua jaso eban:

Izarbeltz onetan bizi nazan berrogeta amalau urte onetan, iru bider uts-utsean nekarazi naz. Lenengoz orain ogeta bi urte, Jaungoikoak daki non jauzi zan basa-erle bat dala ta. Sarata izugarria egin eban eta aste osoan kopuru baten lau uts egin nebazan. Bigarrenez, orain amaika urte izan zan, ezueri, unorea zio izanik. Soin-jardunketak bear dodaz, egin bear dodaz. Mugitzeak egiteko ez dot astirik. Ni zuzen, deduzkoa naz. Irugarrenez... Ara emen!. Iñoan, ba, bosteun miloiak...

Miloiak zerenak?.

Azkenean, gizon garazleak, bake-itxaropenik ez zala sumatu eban.

Nozean beinka ortzi, zeruan, ikusten diran gauza txiki orreik.

Euliak?

Ez ba. Dirdiratzan dabean gauza txikiak.

Erleak?

Ez gizona!. Alper, nagiak, zorobiatu egiten dabezan urre margodun gauza txikiak. Bai ni zuzenezkoa naz! Zorobiatzeko ez dot astirik.

Aaa! Izarrak?

Orrexek. Izarrak.

Eta bosteun miloe izarrakaz zer egiten dozu?.

Bosteunde bat miloe seireunde ogeta bi mila seireunde ogeta amaika. Ni oso zentzunduna naz, ni doia naz.

Eta izar guzti orreikaz zer egiten dozu?

Zer egiten dodan?

Bai.

Ezer ez. Jabetu.

Izarren jabea zara?

Bai.

Baiña errege bat ikusi dot...

Erregeak ez dira jabledunak, "erege izan". Guztiz ezbardiña da.

Izarrak jabetzea zuretzat zetarako da gauza?

Aberatsa izateko baiotsuak dira.

Eta aberatsa izatea zetarako dozu gauza?

Beste izar batzuk erosteko, norbaitek aurkitu, topatzen ba dauz.

Onek, prinzipitok bere baitan iñoan, moz korti bat bezela errozoikatzen dau.

Alan be, itaun, galdeka, jarraitu eban.

Izarrakaz zelan jabetu leiteke?

Norenak dira? gizon garazleak zakar erantzun eban.

Ez dakit. Ez dira iñorenak.

Orduan nireak dira. Neu naz, arazo onetzaz gogoratu, oldoztu nazana.

Naikoa da?

Noski, jabe-gabedun arri-bizi bat aurkitzen dozunean, zeurea da.

Jabe bako izaro bat aurkitzen dozunean, zeurea da. Gogo, xede bat izatean lenengo ba zara, asmu-agiri bidez babesten dozu, zeurea da. Izar guztien jabe naz, iñok iñoiz nik baño lenago, sekula eurak jabetzea amesetan be izan ez ebelako.

Bai egia da, prinzipitok iñoan. Zuk, izar orreikaz zer egiten dozu?

Zaindu. Kudeitu. Zenbakaitu ta birzenbakaitu, gizon garazleak iñoan. Zail, gaitza da. Baiña gizon zentzundun bat naz!

Prinzipito ez egoan bat be atsegintzu, nasai.

Nik bai ba daukat iduan-zapi bat, beragaz nire iduna inguratu neike. Nik ba daukat lora bat, eroan eta ebagi daiket. Baiña zuk izarrak ez zeinkez ebaki!

Ez, baiña diru-etxe baten zainpean ezarri daikedaz.

Orrek zer esan gura dau?

Orrek esan nai dau, nire izarrak papertxu baten euren kopurua idatzi ta ondoren papertxua kutxatzar baten giltzapean ertsiten dot.

Ori da dana?

Naikoa da.

Jostagarria da, prinzipitok gogoratu eban, baiña ez da zentzunduna.

Gauza, izaki zentzundun buruz prinzipitok gizaki adiñekoakandik eretxi guztiz ezberdiñak ebazan.

Nik, jarraitu eban, egunero urestatzen dodan lora bat daukat. Astero kedar-kentzen dodan iru sumendi daukadaz. Itzali, amatata dagona be kedar-kentzen dot. Batek iñoiz ez daki. Nire sumendi ta nire loratxuentzat be, eurakan dodan jabetza, oso baliotsua da. Baiña zu, izarrentzat ez zara bat be baliotsua...

Gizon garazleak bera aboa idegi, zabaldua, baiña erantzunik ez aurkiturik, prinzipitok alde egin eban.

Zuzen be, gizaki adiñekoak arrigarri, izugarriak dira, bidalia igarotean, bidalian jarraituz, bere baitan iñoan.

#### XIV

Bostgarren izarbeltza oso bakana zan. Danatatik txikiena. Kresailu, argi-ontzi bat eta krisailari bat ostaz ostaz ezartzeko lekua eukan. Ortzi, zeruko toki anbatan, etxe ta biztanle gabedun izarbeltz baten krisailu ta krisailari bat

ze arraiotarako baliotsuak izan leitekezan, prinzipitok ez eban ulertzen, bere buru txikia ez zan azaltzen. Alan ere, bere baitan iñoan:

Bear ba da, gizon au zentzun-gabekoa da. Ala ere, errege, artoa, garazle gizona ta ardao-zalea baño zentzun-gabe gitxiagokoa da. Edozelan be, bere lanak elburu, xede bat dau. Krisailua biztuten dauanean, izar bat geiago sortuko ba leu bezela da, edo lora bat. Krisailua amatatzen dauanean, lorea edo izarra lotan ezartzen dauz. Zeregin, ataza polit bat da. Benetan ongari, onuratsua polita, berezia dalako.

Izarbeltzara eldu zanean, krisalaria begirunez agurtu eban.

Egun on. Une onetan krisailua zergaitik amatau dozu?

Agintea da, krisalariak erantzun.

Egun on.


Agintea zar da?

Krisailua amatatzea. Gabon.

Eta barriro biztu eban.

Baiña orain zergaitik biztu dozu?

Agintea da, krisalariak erantzun.



*Langintza, bizibide, izugarri bat dot.*



Ez dot ulertzen, prinsipitok esan eban.

Ez da ezer ulertzerik, krisalariak esan eban. Agintea agintea da. Egun on. Eta krisailua amatau eban.

Ondoren, esku-zapi lauki margo gorrizkadun bateaz bekokia idortu, legortu, eban.

Langintza izugarri bat dot. Len zuzen, bidezkoa zan. Goiz-sentian amatazen neban eta gabean biztu. Olan egunaren gaiñerako zatia atsedentzeko neban ta gabarena lo egiteko...

Aldi orren azkenean, agintea aldatu zan?

Agintea ez da aldatu, krisalariak esan eban. Ori da kezka! Urtetik urtera izarbeltza ariñago birakatzen da ta agintea ez da aldatu.

Orduan? prinsipitok iñoan.

Orain minutuko birakada bat dauan ezkerro, segundo bat be ez dot atsedenerako, biztu ta amatau minutu bat barruan egiten dot. Minutuko biztu ta amatau egiten dot.

Ze bakana! Zure izarbeltzen egunak minutu bat irauntzen dau.

Zelako bakana edo., krisailariak iñoan, ezelan be ez da bakana. Ile-bete da alkar-izketan garala.

Ile bete?

Bai. Ogeta amar minutu. Ogeita amar egun! Gabon.

Eta barriro krisailua biztu eban.

Prinzipito adi-adi egoan, krisailaria aginteaz ain zintzoa zan ezkerro, bere guztokoa zan. Beste aldi baten, bere aulkia mugiduz bilatzen ebazan arrats-gorriak, gogoratzen ebazan. Bere adiskidea lagundu gura izan eban.

Ba dakizu?... Zeuk gura dozun beste lo egiteko erabat ezagutzen dot.

Beti nai dot, beti naz lo gura, krisailariak iñoan.

Ba da, alperra ta zintzoa batera, izan leiteke.

Prinzipitok jarraitu eban:

Iru oinkada, urrats luzeakaz zearkatu al izateko aiñako txikia da zure izarbeltza. Beti eguzkitan egoteko, geldiro-geldiro ibiltea baño besterik ez dozu bear. Atsedendu nai dozunean, bideratu, ibiliko zara... eta zeuk nai dozun beste iraungo dau.

Orregaz ez dot bat be irabasten, ezer onuragarriarik lortzen, krisailariak iñoan. Niri bizitzan guztatzen jatana, atsegin jatana, lo egitea da.

Zori ona ez izatea da, prinsipitok iñoan.

Zori ona ez izatea da, krisailariak iñotsan. Egun on.

Eta krisailua amatau eban.

Asaagoarantz bidalia egiñik, prinsipitok bere baitan iñoan, au beste danakaitik arbiatua izango litzake, erregeagaitik, arroagaitik, ardao-zaleagaitik eta gizon garazleagaitik. Alan ere, bakan, barregarri iruditen ez jatan bakarra bera da. Ber-beragan zer ikusirik ez dauan zeregin baten arduratzen dana dalako, bear ba da, izango da.

Erimiñez asperatuz, bakar-izketan jarraitu eban:

Izan al zan nire adiskide bakarra, gizon au da. Baiña bere izarbeltza benebenetan txikiegia da. Bintzat ez dago lekurik...

Izarbeltz doatsu, zoriontsu au, bakar-miñez sentitzen ebala, prinsipitok ez eban autortu gura izaten, batez be, laraun arrast-gorriakaitik, ogeta lau orduko.

## XV

Zazpigarren izarbeltza amar bider edatsuagoa zan. Liburutzar itzelak idazten ebazan agure bat beratan bizi zan.

Arraioa! Ara emen lur-ikerle bat!, prinsipito ikusi orduko oiuka esan eban.

Prinsipitok mai gainean jezarrita, zurruntzatze labor batzuk egin ebazan. Bidali ain luzea egin eban!

Nondik zatoz?, Agureak esan eutsan.

Zer da idazki ain lodi au?, prinsipitok itaun eban. Emen zer egiten dozu?

Geografo naz, Agureak esan eban.

Zer da geografo bat?

Itxaso, ibai, uri, mendi ta basamortuak non aurkitzen diran dakian jakitun bat da.

Benetan interesgarria da, prinsipitok esan eban. Ordua zan! azkenean lagintza zuzenezko bat!. Geografoaren izarbeltz ganetik, bere inguruetara begirakada batzuk egin ebazan. Sekula ikusi ebanik izarbeltz itzaltsugarriena zan!

Berorren izarbeltza polit, eder-ederra da. Itxas-aundi, ozeanorik, ba da?



Ezin daiket jakin, geografoak esan eban.

Aaa! Prinzipito amets-etenda zan. Mendirik?

Ezin daiket jakin, geografoak esan eban.

Eta uri, eta ibaiak eta basamortuak?

Ezta ere, orrek be ezin daikedaz jakin, geografoak esan eban.

Baiña... geografoa zara?

Zuzen be, geografoak iñoan, baiña lur-ikerlea ez naz. Osoz, erabat lur-ikerle gabe naz. Uri, ibai, mendi, itxas-aundi ta basamortuen zenbaketa, kondukatzea egin bear dauana, geografoa ez da. Alderai ibilteko geografoa ardurazko, itzaldunegia da. Bere lan-gela, lan-tokitik ez dau aldendua bear. Baiña bertan lurikerleak begirunez artzen dauz. Galdentzen dauz eta euren oarpenak kontuan izaten dauz. Batan baten, norbaiten, oarpenak garrantzitsuak interesgarriak eritxiten ba jakoz, lur-ikerlearen zileitasunen buruz, zuzentasunatzaz, geografoak ikertze, azterpen bat egin-azoten dau.

Zergaitik?

Lur-ikerle batek guzurre esango ba leu, geografi liburuetan ondasuna eragingo leukelako. Eta baita be lur-ikerle ardao-zale batek be.

Zergaitik?, prinsipitok galdetu, itaundu eutsan.

Mozkortiak, ardao-zaleak, birritan, bi bider, ikusten dabelako. Orduan geografoak, mendi bat aurkitzen dan lekuan, bi zantzutuko leukez.

Norbait, lur-ikerle kaltegarria izango litzaken bat, ezagutzen dot, prinsipitok esan eban.

Ba leiteke. Olan izanik, lur-ikerle baten zileitasuna egokia eritxi ezkeru, arkimen buruz azterpen bat egiten da.

Ikustera joaten da?

Ez. Nasgarriegia da. Baiña lur-ikerleak siñisgarri, siñizpeak agertu, erakutsi bearuko dauz. Adibidez, esate baterako, menditzar aundi baten ikertetzaz, buruz, arritzar aundi batzuk ekarri bearuko dauz.

Bat batean geografoa unkitu zan.

Baiña zu, zu urrun, asaotik zatoz!. Lur-ikerlea zara!. Zure izarbeltza marraztatuko daustazu!.

Bere iker-liburua zabaldu ondoren, geografoak arkatza zorroztu eban. Lur-ikerleen jaulkitzeak lenengotan arkatzez oartzen dira. Idazturez oarkatzeko lur-ikerlearen silisgarriaren aurkeztzea itxaron bear da.

Zer ziñoan? geografoak itaundu eban.

Ooo! Nire izarbeltza, prinsipitok iñoan, ez da garrantzitsua, oso txikia da, txiki-txikia da. Iru sumendi daukaz. Sumendi bi bizirik, eta sumendi bat etenda. Baiña iñoiz ez da jakiten, geografoak iñoan.

Lora bat be ba daukat.

Lorak ez doguz oartzen, geografoak esan eban.

Zergaitik? Polit-ederrena da!

Lorak iragonkorak diralako.

Iragonkorra zer esan nai dau?

Liburu danetatik garrantzitsu, baliotsuenak, geografoak esan eban, geografi liburuak dira. Beti mentadunak diralako. Mendi batek toki aldatzea izatea guztiz bakana da. Itxas-aundi batek ura galtzea be guztiz bakana da. Izaki, amai-gabe, azken-bakoak idazten doguz.

Baiña sumendi iraungiak biztu laitekez, prinzipitok geldi-arazi eban...

Iraungi zer esan nai dau?

Guretzat sumendiak etenda, amatau ta izan zein biztuak izan dirala, ez dau ardura, lebarik, bardin-bardin da, geografoak esan eban. Guretzat arduraduna, garrantzi dauana, mendia da. Mendia ez da aldatzen.

Baiña iragankor, zer esan gura dau?, bere bizi osoan prinzipitok itaun, galdera bat egin ezkerero, sekula erantzuna ez eban jaretsi ta berriro esan eban.

Bere suntsipena laster izango dala esan nai dau. Urte, aldi, laburrerako biztu-aldia dauala, esan gura dau”.

Nire loratxua be lasterki suntsipenak larderituta da?

Ziurki. Bai aurki.

Nire lorea iragankorra da, bere baitan prinzipitok iñoan, ludiagandik babestzeko lau arantza uts-utsean daukaz!. Eta nire etxean, nire egoitzan, bakar-bakarrik itxi dot!

Bere erri miñaren lenengo eragiña ori izan zan.

Baiña adorez bete zan.

Ikustaldi bat egitera joan naiten, aolkatzen nozue?, itaundu eban.

Izarbeltz Ludi, Mundua, geografoak erantzun eutsan, ospe, aomen ona dau.

Eta prinzipito, bere loratxua gogoan ebala, aldendu zan.

## XVI

Zaspigarren izarbeltza Ludi, Mundua, izan zan, ba.

Ludi, Mundua, ez da edozelako izarbeltz bat. Bertan amaika errege dira (ori errege baltzak kontuan izatea aiztu barik), zazpi mila geografo, bedarlatzi mila garazle, zazpi miloi terdi mozkorti, irureunde amaika arro, au da, apur bat gora-bera, bi miloe gizaki adiñekoak.

Ludi, Munduaren eremu zenbaterañoakoa dan kontuan izan daizuen, dagizuen, esan bear dautsuet, arri-tximista ikertu baño lenago, Ludia osotzen daben sei lurraldetan, laraunde irurogeta bi mila bosteunde amaika argi-zain, bene-benetako gudaroste bat, bear izaten zala.

Urrun, asaotik begiratuz, ikuspegi zoragarria agertzen eben. Gudaroste onen mugimenduak, eres-antzerki baten antzera irudituz, antolatuta egozan. Lenengo txanda Nueva Zelanda ta Australiako argizaintzailena zan. Euren argi-ontziak biztu orduko lotara joaten ziran. Orduan dantzari txanda China ta Siberiako argizaintzaileak agertzen ziran. Ondoren, eurak be ustai artean estaldurik. Orduan Rusia ta India argizaintzaileen txanda zan. Gero Afrika ta Europa-koena. Ondoren Amerika Egoaldokoena. Jarraian Ipar Ameriketarra. Ager-

toki sarrera antolamendurik ziran lez sarturik, iñoi utstxu bat ez eben izaten. Ikusgarria benetan.

Ipar-buruko krisailu bakarraren argi-zaintzailea ta ego-buruko krisailu bakarraren argi-zaintzaileak arazo gabe ta ajola gabedun bizia eroen.

Urtean, urtero, egun bitan uts-utsean lan, bear, egiten eben.

## XVII

Burudun, jakituna, iza-tea gura danean, guzur bat edo beste esatea jazoten da. Argi-zaintzaileen buruz izketan jardun dodanean, guztiz deduzkoa ez naz izan. Gure izarbeltza ezagutzen ez dabenen aurrean irudimen oker bat agertzeko arriskua dot. Gizonak Ludi, Mundua, saila oso txikia betetzen dabe. Ludian bizi diran bi mila miloe biztanleak zutunik, zutik, eta apur bat estu jarriko ba litzakez, itzaldi, mitin, baten bezela, ogei mila luze ta beste ogei mila zabal dan enparantza, plaza baten errez aokatu, sartuko litzakez. Pazifikoko izarotxu txikie-nean, Ludiko gizadia pilotua izango litzake.

Adiñeko gizonak, zalantzarik gabe, au ez dausue siñistuko. Saila eda-tsuagoa betetzen dabela, uste dabe. Baobas bezela garrantzitsu, aundiputz ikusten dira. Zenbaketa, kontaketak egin dagiezela bai, aolkatuko dozuez. Zenbaki, kopuruak, jauretsiten dabezelako. Neke, zigor onetan ez eizue astirik galdu. Alperrik da. Nigan uste osoa izan eizue.

Lurra oinperatu ebanean, prinzipito, bertan iñor ez ikustean guztiz arrituta geratu zan. Izarbeltzez uts egin ebala bildur zan, baiña ara non, are artean ilargi, iretargi, margozko bat zelan lardakutzen dan.

Gabon, prinzipitok uste gabe esan eban.

Gabon, sugeak esan eban.

Zein izarbeltzen jauzi naz?, prinzipitok galdetu eban.

Ludi'an, Afrikan, sugeak erantzun.

Aaa!... Ludian ez dago ba, iñor?.

Emen basamortua dago. Basamortuetan ez dago iñor. Ludia aundi da, sugeak esan eban.

Prinzipito arritzar baten ganean jazarri, eta zerurantz bere begiak jaso ebazan:



Egun anbatan, noiz edo noiz, bakoitzak berea aurkitu al dagian, ia izarrak biztute dagozan, neure buruari itauntzen dautsat, prinzipitok esan eban. Nire izarbeltza begira, aditu eizu. Geure gane-ganean dago... baiña, ze asao, urrunki dagon!

Ze polit-ederra dan!, sugeak esan eban. Ona zer egiten etorri zara? Zertan zatoz ona?

Lora bateaz naigabetuta nago, naz, prinzipitok esan eban.

Aaa!, sugeak esan eban.

Eta ixil ixilik geratu ziran.

Gizon, gizakiak non dagoz?, prinzipitok jarraitu eban. Basamortuan apur bat bakarti egoten da...

Gizon, gizakiakaz be, bakarti egoten da, sugeak esan eban.

Prinzipitok luzaro begiratu eban:

Abere bakan bat zara, azkenean esan eutsan. Atzamar bat aiñako mea, argala

Baiña errege baten atzamarra baño altsu, indartsuagoa naz, sugeak esan eban.

Prinzipitok irribarretxu bat egin eban:

Altsu... altsua ez zara..., ankarik be ez daukazu ta... Ibili, bidaliak be ezin dozuz egin, ezin zara bidalitu...

Itxas-ontzi batek baño urrun, asaoago, eroan zaikedaz, sugeak esan eban.



*Abere bakan bat zara, azkenean esan eutsan, Atzamar baten aiñako mea, argala...*

Urrezko eskuturreko bat bezela, prinzipiton orkatilen biribilkatu zan:

Nik ukutzen dodana, urten eban lurraldera itzultzen dot, iñoan. Baiña zu garbi, gotuts, zara eta izar batetik zatoz...

Prinzipitok ez eban erantzun, ixil ixilik geratu zan.

Zugan tamala dot, zu ain aul, makal, aizpikor, arrizko Ludi onetan. Egun anbaten, nozbaiten, zure izarbeltzen arrotz sentitzen ba zara, lagundu dai-kezu. Dalket...

Bai! Bai! Ondo be ondo ulertu dautsut, prinzipitok esan eban, baiña, zer-gaitik beti adikaitz, itz, berba egiten dozu?

Nik guztiak zuzentzen dodaz, sugeak esan eban.

Eta ixil ixilik geratu ziran.

## XVIII

Prinzipitok basamortu osoa zearkatu eban eta loratxu bat baño ez eban aurkitu. Iru erbatzdun lora bat, ezereko lora bat...

Egun on, prinzipitok esan eban.

Egun on, loreak esan eban.


Gizonak non dagoz?, begirunez prinzipitok itaundu eban.

Loratxuak, bein baten gizon-talde bat bertatik igaroten ikusi eban.

Gizakiak? Sei edo Zaspi bizi dirala, uste dot. Urteak dira ikusi nebazala. Baiña iñoiz ez dakizu non aurkitu. Aizeak daroez. Zustrai gabedunak dira. Ez eukiteak oso nekarazitzen dabez.

Agur, prinzipitok esan eban.

Agur, loratxuak esan eban.



## XIX

Prinzipito mendi goi batera igon zan. Iru mendi soilki, uts-utsean, ezagutu ebazanak, iru sumendi orkatilaroñoko goiak izan ziran. Sumendi etena, amataua aulkitxo bezela erabilten eban. "Onen aiñako mendi goi batetik, iñoan bere baitan, izarbeltz eta gizon, gizaki danak ikusiko dodaz..." Baiña aitz erpin guztiz zorrotzak soilki ikusi ebazan.

Egun on, uste gabe esan eban.

Egun on... Egun on... Egun on... Oiartzunak erantzun eban.

Nor zara?, prinzipitok esan eban.

Nor zara... Nor zara... Nor zara, oiartzunak erantzun eban.

Nire adiskideak izan zaiteze, bakar-bakarrik nago, naz... prinzipitok iñoan.

Bakarrik nago,  
naz... bakarrik nago,  
naz, oartzunak erantzun  
eban.


Ze izarbeltz bakanal,  
oldoztu eban. Legor,  
erpin eta gazia da. Eta  
gizakiak asmamen, adi-  
menik ez dabe. Esaten  
jakena, barriz esaten  
dabe... Nire etxean,  
nire egoitzan, lora bat  
neukan, bera zan  
lenengo itz, berba, egi-  
ten ebena".

## XX

Baiña prinzipitok  
area, aitz eta edurtzeak  
luzaro zearkatuz, azke-  
nean ibilbide bat aurki-  
tzea jazo zan. Eta ibil-  
pide guztiak gizonen  
gizakien, egoitzetarantz  
doaz, eroaten gaitue.


Egun on, esan eban.

Larrosadun baratz  
loratsu bat zan.



*Izarbeltz au legor, erpin eta gazia*





Egun on, loratxuek esan eben.

Prinzipitok begiratu ebazan. Danak ziran bere loratxuen antzekoak.

Nortzuk zarie? Txundituta, arriturik, prinzipitok galdetu eutsen.

Larrosak gara, larrosak esan eben.

Ooo! Prinzipitok esan eban.

Eta oso zoragaiztokoa sentitzen zan. Bere loratxuak, ludi osoan bere motako, lora-motako, lora bakarra bera zala, esan eutsan. Eta ara emen, lorategi bakar baten, bost mila bere irudi ber-bera ziranak, zelan egozan.

Ikuspegi onegaz, au ikusiko ba leu, bere baitan iñoan, ondo be ondo kuzkurturik sentiko litzake, eta gogor, indartsu ezulkatuko leuke, ta barregarritzetik alde, iges egin, naian ilzorlan dala irudiko leuke. Baiña nik babesten dodazala antzerartu bear ko neuke, bestela, ni be kuzkurtu naian, egiz iltera izango litzake,...

Ondoren jarraituz, "Lora bakan bateaz aberatsa nazala, uste neban, eta larrosa arrunt bat baño ez daukat. Larrosa bat eta nire belaunetaraño goi diran iru sumendi, euretariko bat betirako amatau, etenda, bear ba da egongo da, besterik ez daukat". Bene-benetako, egiz-egizko prinzipie bat ez naz...". Eta bedar ganean etzunda, negar egin eban.

## XXI

Orduan azeria agertu zan, Lukia agertu zan.

Egun on, azeriak esan eban.

Egun on, adeitsuki prinzipitok erantzun, bereala bira egiñik, baiña ez eban iñor ikusi.

Emen nago, abotsak iñoan, sagarpean.

*Eta bedar ganean etzun, negar egin eban.*



Nor zara?, printzipitok iñoan, polit-ederra zara...

Azeri, luki, bat naz, azeriak esan eban.

Zatoz, erdu, nigaz jolasten, printzipitok eskai eutsan. Ain goibel, azpertura naz!

Zugaz ezin naz jolastu, lukiak esan eban. Ez naz otsandua.

Aaa! parkatu, printzipitok iñotsan.

Baiña, apur bat gogartu ondoren jarraitu:

“Otzandu” zer esan gura dau?.

Emengoa ez zara, azeriak esan eban. Zeren bila zabiltz?

Gizon, gizakiak, bilatzen dodaz, printzipitok esan eban. “Otzandu” zer esan nai dau?.

Gizonak, azeriak iñoan, azeri-izkiluak daukiez eta eiztan saiatzen dira. Oso nekagarri, azpergarria da. Oiloak be ezitzen dabez. Euren zudu, ardura bakarra da. Oilo bila zabiltz?.

Ez printzipitok esan eban.

Adiskide, lagunak, bilatzen dodaz, printzipitok esan eban. “Otzandu” zer esan nai dau?

Arazo, izaki aitzunegia da, azeriak esan eban. “Alkartasuna sortzea da”.

Alkartasuna, urbiltasuna sortu?

Bai, azeriak esan eban. Ondiño zu niretzat, eun mila mutikotxuen antzeko mutikotxu bat baño ez zara. Ez zaitut bearrezkoa. Eta zuk be ez nozu bear. Zuretzat ni, mila luki antzeko luki bat baño ez naz. Baiña alkartu, menperatzen ba nozu, bata bestearen bearzanean izango gara. Niretzat Ludian bakarra izango zara. Zuretzat Ludian bakarra izango naz...

Aditu, ulertzen, asi naz, printzipitok esan eban. Lora bat dago... Menperatu nauala, uste dot...

Ba leiteke, lukiak iñoan. Ludian izaki bakoitzik ikusten da...!

Ooo! Ludia ez da, printzipitok esan eban.

Azeria arriturik, kezkatu, iruditen zan.

Beste izarbeltz baten?



Bai.

Izarbelts onetan eiztaririk ba dago?

Ez.

Ori garrantzitsu, interesgarria da!. Eta oilorik?

Ez.

On utsa danik ez dago, zisपुरuka azeriak iñoan.

Baiña azeriak bere gogoketatan jarrai eban:

Nire bizitza teenta, doiñu-bakarrekoea da. Oiloak eizatzen dodaz, gizonak eizatzen nabe. Oiloak danak dira alkar-antzekoak, eta gizon guztiak be alkar-antzekoak dira. Alan da ze, gogaitzen naz, baiña menperatzen ba nozu, nire bizitza eguzkiz beteko da. Besteren antzik ez daben oinkada, urrats, batzuen otsa entzungo dot. Beste urrats, oinkadak, lurperatu-azoten nabe. Zureak, soiñu, eresi, bat bezela, nire gordelekutik kanpora deituko daust. Eta ganera, begira, aditu eizu!. An urrunean, asao, gari soloak ikusten dozuz? Nik ogirik ez dot jaten. Niretzat garia alperrikoea da. Niri gari soloak ez dakarste gogoketarik. Oso goibel, tamala da! Zuk urrezko margodun ule, ileak daukazuz Menperatzen nozunean, ikusgarria, ikustekoea izango da!. Gari gozrrizka margoduna zure oroimen bat izango da. Eta aizeak gari artean eragiten dauan ots, soiñua, maite izango dot, maitatuko dot..

Azeria ixildurik, prinsipito begiratzen luzaro geratu zan:

Mezedez... menperatu naizul!, esan eban.

Atsegingarria izango litzaket, prinsipitok erantzun eban, baiña asti larregi ez dot. Adiskide, lagunak, bilatu bear dodaz eta izaki ugari ezagutu.

Menperatzen dirazan izakiak uts-utsean ezagutzen dira, azeriak esan eban. Gizonak ezer ezagutu al izateko astirik ez dabe. Orain izaki egiñak, saleroslei erosten dautsez. Baiña adiskide, lagunen, sal-eroslerik ez dagon lez, gizonak, gizakiak, ez dabe adiskide, lagunik. Adiskide, lagun, bat nai ba dozu, menperatu naizul!

Zer egin bear da? prinzipitok esan eban.

Oso eroapenduna izan bear da, azeriak erantzun eutsan. Lenengotan nigandik urrunki, asao, jezarriko zara, onelan, bedar ganean. Zearka begiratu tuko dautsut eta ez dozu esango ezer, ixil ixilik geratuko zara. Itza uler-oker, uler-gaitzen, iturria da. Baiña egunik egunera, urbilago jezarri al isango zara... daitekez...

Birramonean prinzipito itzuli zan.

Ordu beratan etortea oba izango zan, azeriak esan eban. Adibide, arratsalde, arrastiko lauretan etorten ba zara, ba zatoz, iruretatik aurrera zoriontsua izango naz. Zenbat eta geiago ordua, astia, aurrera joan, zoriontsuago izango naz. Lauretan urduri, kezkatu izango naz, zorion, atsegiñaren neurri, balioa, jakin-azoko dot. Baiña edozein orduan, ordu ezbaridiñetan, etorten ba zara, iñoiz ez dot jakingo ze ordutan, ze sasoiari, nire biotza gertatu... Arauak bearrezkoak dira.

Bearrezkoa zer da?, prinzipitok esan eban.

Larregi aaztuten dan zerbait be ba da, azeriak esan eban. Egun bat besteakandik, beste egunakandik, ezbaridiña egiten dauana da; ordu bat beste ordukandik. Adibidez, eiztarien artean oitura bat dago, da. Eguenetan erriko neskatilakaz dantzaten dabe. Beraz, Eguenak egun zoragarri, atsegingarriak dira Mastiraño ibilaldi bat egiten noa. Eiztariak egun alda-ezin baten dantzatuko ba leuke, egun guztiak antzekoak izango litzakez eta nik oporrik ez neuke izango.

Onelan prinzipitok azeria menperatu eban. Eta aldatzeko, abiatzeko ordua eldu zanean:


Aaaa!,... lukiak esan eban, negar egin bear dot. Negarrez naz.

Errua zeurea da, prinzipitok esan eban. Kalterik egitea ez neban gura, nai baiña menperatu zaiedazala gura zenduan...

Bai, azeriak esan eban.

Orduan, beraz, ez dozu ezer irabasten.

Irabasten dot, azeriak esan eban, gari margogaitik.



Ondoren,  
jarraituz:

Joan zaitez,  
zoaz, eta larrosak  
barrero begiratu  
eizuz. Zure larro-  
sea. Zure larrosea  
ludian bakarratu  
dala ulertu al  
izango dozu. Ni  
agurtzeko itzuliko  
zara eta ixil-mezu  
bat opako dau-  
tsut.

Prinzipito,  
lorak barrero ikus-  
tera joan zan.

Nire loratxuen  
antzekoak ezertan  
be ez zarie,  
ondiño ez zarie  
ezer, esan eutsen.  
Iñok ez zaitue  
menperatu ta iñor  
ez dozue menpe-  
ratu. Nire azeria  
izan zan antze-

koak zarie. Beste eunmila azerien antzakoa baño ez zan. Baiña nire adiskide-  
tasuna opa neutsan, eta orain ludian bakarra da.

Eta larrosatxuak oso nekarazita izan ziran.


Polit-ederrak zarie, baiña utsik zagoze, jarraian esan eutsen. Bizia zuek-  
aitik ezin daiteke galdu. Zalantza gabe txangolari arrunt batek, nire loratxua  
zuen antzekoa dala, uste izango leuke. Baiña bera bakar-bakarrik zuek guz-  
tziok baño, danok baño, funtsezkodunagoa da, ba bera da nik urestatu  
dodana. Borobilpean ezarri nebana bera dan ezker, ate-gerizapean, geriz-  
petu neban larrosea bera dan ezker. Bere mamarroak, gero txirpilota, mitxe-  
leta izan ziran bi edo iru izan ezik, il nebazana dan ezker. Aieneka edo goral-  
tzen, edo batzutan ixilik, entzun neban larrosea dan ezker. Bera nire larro-  
sea dan ezker.

Azeria egoan tokirantz biratuz:

Agur, esan eban.

Agur, azeriak esan eban. Ara emen nire ixilpea. Guztiz bakan, atal-gabea  
da: Biotzez uts-utsean ikusten da. Muinduna begiz ikusi-eziña da.

*Adibidez, arrastiko lauretan ba zatoz, iruretatik  
aurrera atsegintsu izango naz.*



Muinduna begiz ikusi-eziña da, gogoratu naian, prinzipitok esan eban.  
Zure larrosatxua ain goraldtu, aundia, izatera eldu ba da, beragaz zuk galdu zenduan asti, denporagaitik da.

Nire larrosatxuagaitik galdu neban asti, denporea,... gogoratu naian, prinzipitok esan eban.

Gizon, gizakiak, egi biril au aiztu dabe, azeriak esan eban. Baiña zuk ez dozu aiztu bear. Betirako menperatu dozun danaren arduraduna zara. Zure larrosearen arduraduna zara...

Nire loratxuen arduraduna naz... gogoratu naian, prinzipitok berriz-esan eban.

## XXII

Egun on, prinzipitok iñoan.

Egun on, burni-bide-zaindariak esan eban.

Emen zer egiten dozu?, prinzipitok esan eban.

Bidagileak milakako loturatan kidetzen dodaz. Eurak daroezan su-burdi, trenak, bai eskumara zein ezkerrerantz, bialtzen dodaz.

Laster-tren batek, justuri bezela orroatuz, bide-zaindariaren gelatxoa dar-daraka ezarri eban.

Leiatsu doaz, prinzipitok esan eban. Zer bilatzen dabe? Ze arazo dabe?.

Su-burdi gidariak berak be ez daki, ezjakiñen da, bide-zaindariak esan eban.

Eta bigarren laister-suburdi argidun bat alde ezbardiferantz burrunbaka igaro zan.

Ba datoz, izulten dira?, prinzipitok itaundu, galdetu eban.

Lengokoak ez dira, bide-zaindariak esan eban. Aldaketa bat da.

Egozan lekuan, aurkitzen ziran lekuan, pozik ez ziran, ez egozan?.

Egoten dan lekuan, bizitzen dan lekuan, iñor ez da izaten pozik, bide-zaindariak esan eban.

Eta irugarren laister-suburdi argidun bat burrukaka igaro zan.

Lenengo bidagaielen jarraian dira?, prinzipitok iñoan.

Ez doaz ezeren jarraian, bide-zainak esan eban. Or barnean arrausika edo lo doaz. Umetxuak uts utsean euren zudurtxuak leioan aurka zapaltzen dabez.

Zer gura, bilatzen daben, umetxuak uts utsean dakie, prinzipitok esan eban. Zarpilezko andere, panpin, bat dala ta, astia, denporea, galtzen dabe eta andere, panpina garrantzitsua dan zerbaiten biurtzen da, eta ondoren panpiña kentzen ba jake, negarrez saiatzten dira...

Zori ona dabe, bide-zainak esan eban.

### XXIII

Egun on, prinzipitok esan eban.

Egun on, sal-erosleak esan eban.

Egarria baretzen dabean pildu obetuen sal-erosle bat zan. Astero bat artzen da eta geiagotan egarririk ez da izaten, sentitzen.

Zergaitik ori saltzen dozu?, prinzipitok esan eutsan.

Asti aurreratzaile berezi da, sal-erosleak esan eban. Asturatsuak ikerketak egin dabez. Astero berrogetamairu minutu aurreratzen dira.

Eta berrogeta amairu minutu orreikaz, zer egiten da?.

Gura, nai dana egiten da...

Nik, prinzipitok iñoan, orreik berrogeta amairu minutuak eragiltzeko ba neukaz, izango ba nabez, iturrirantz bare-bare, geldiro-geldiro, bideratuko nintzake...".

### XXIV


Basamortuan nire "panne"ren zortzigarren egunean giñan eta sal-eroslearen kondaira adi-adi, nire emendio uraren azkenengo tantalak edaten, entzun neban.

Aaa! Prinzipitori esan neutsan. Zure gogarketak oso polit-ederrak dira, baiña ondiño nire egazkiña ez dot konpondu, ez daukat edaririk, eta neu be zoriontsua izango nintzake bare-bare, geldiro-geldiro iturri baterantz bidaritu al izango ba nintzake.

Nire adiskide azeriak esan eustan.

Nire gizontxu txikia!, azeriatzaz eez dogu geiago jardun bear.

Zergaitik?



Egarriz il bear dogulako...  
 Nire burubide, argibidea, ez eban ulertu ta erantzun eban:  
 Adiskide, naizta eriotzarantz joan lagun bat eukitea, izatea, oso ona da.  
 Laguntzat azeri bat izateaz guztiz pozik, atsegintsu naz...  
 Arriskua ez dau neurtzen, neugan niñoa. Gosez ez egarriz ez da iñoiz.  
 Eguzki apur bategaz naiko dau...".

Baiña begiratu eustan, eta nire gogoketari erantzun eustan:  
 Ni be egarriz naz... Osin, urtegi bat bilatu dagibun...  
 Nekezko keiñu bat egin neban. Basamortu zabalean, muga gabeko basamortuan alabear, uste gabe, urtegi, osin bat bilatzea zentzungabekeria da.  
 Alan da guzti be, abiatu giñan.

Luzaro, ordu luzeetan ixilik, ixiltasun goibelean bidegileak izanik, argitasunagaz gaba jabeturik, izarrak dizdiratzen asi ziran. Amesentan lez ikusten nebazan, nire egarriaren ondorioz sukarrak apur bat neban. Prinzipiton itz, berbak, nire gogo, adimenean dantzaten ziran:  
 Zu be egarri zara?, itaundu neutsan.  
 Nire itaun, galdera, entzun gabe geratuz. Soilki, uts-utsean, esan eustan:  
 Ura biotzarentzat be oso ongarria izan daiteke...  
 Bera erantzuna ez neban ulertu, baiña ixil ixilik, geratu nintzan...  
 Itaun, galdeketa, ez neutsala egin bear, ba nekian.

Oso nekatuta egoan. Jezarri zan. Bere alboan urbil jekarri nintzan. Eta ixiltasun baten ondoren, ondiño esan eban:  
 Izarrak polit ederrak dira, ikusten ez dan lora bategaitik...  
 "Ziurki" erantzun neutsan, eta, itz, berbarik egin gabe, ilargipean arearen tolesdurak begiratu nebazan.  
 Basamortua ederra da, jarraian iñoa.

Egia da. Basamortua betirik maite izan dot. Ondar-meta baten ganean bat jekarri leiteke, daiteke. Ez da ezer ikusten. Ez da ezer entzuten. Alan ere ixiltasunean zerbait disdiratzen da...

Basamortua edertzatu, jasekotu, egiten dauana, prinzipitok esan eban, edozein tokian osin, urtegi, bat estaltzen dauala da...

Arearen dirdira misteriotsua ezagutu nebanean, bat-batean arritu nintzan. Mitikotxua nintzala antziña-antziñako etxe baten bizi nintzan, eta beratan altxor bat estalduta egoala erri-kondairak edesten eban. Zalantza gabe, iñor ez zan izan gauza argitaratzeko eta bear ba da iñor bere bila ez zan saiatu. Baiña etxe, egoitz, zoragarri, liluragarria zan. Nire etxea, egoitzak bere biotz barnean ixil-mezu bat gorde, zaintzen eban...

Bai, prinzipitori esan neutsan, etxe buruz izan, zein izartaz edo basamortu buruz izan, ederritsu, jasekotu egiten dabezena, ikusi-eziña da.  
 Zu nire azeriaz ados egotea, guztatzen jat, esan eban.

Prinzipito loak artu eban lez, nire besoetan arturik, barriz bidegile nintzan, abiatu nintzan. Unkituta nintzan. Altxor bigun, etenkor bat iruditen jatan. Ludli, Mundu zabal ganean izaki bigun, etenkorgarriagorik egon eitekela be, uste



izan neban. Ilargiaren argi izpiak, bere begi ertsiak, bere bekoki zurbil, aizeak astintzen ebazan bere ule, ile txortak begiraturik, neure baitan niñoan: "Emen ikusten dodana azal, oskol utsa da. Garrantzitsuena, ballotsuena, ikusi-eziña da..."

Bere espan ertzedegiak irribarretxu bat agertzen eben lez, jarraitu neban. "Prinzipito lotan dan onetan ainbeste unkitzen nauana, lora bateganako bere zintzotasuna da, naizta lotan egon, argi-ontzi baten sugarra bezela beragan dirdiratzten dauan larrosa beten irudia da...". Eta ondiño etenkor, bigunagoa sentitzen, iruditzen jatan. Argi-ontziak babestea bear-bearrezkoa da: aize bolada baten amatau leikez...

Onelan bidegilea nintzala, egun-sentian osiña, urtegia ikertu neban.

## XXV

Gizonak, prinzipitok esan eban, bizkor-trenetan barneratzen dira, baiña zer bilatzen daben ez dakie. Orduan kezkatu, urduri biraka saiatzen dira.

Eta jarraian:

Ez dau merezi...

Eldu gintzan urtegi, osiñak, Saharako urtegien antzik ez eban. Saharako urtegiak atxurka areatan egindako zulo batzuk baño ez dira. Baserrietako urtegi baten antzekoa zan au. Baiña an baserririk ez zan agertzen, eta amesetan nintzala uste izan neban.

Bakana da, prinzipitok iñoan. Dana da gertuta, xilora, perraila ta sokea...

Barreka, sokea ukuturik, xilora mugidu-azo eban.

Aize lužaro lotan izanik, aize-orratz zaar batek azperetzen dauan bezela, xilora negarritu eban.



*Barreka, sokea ukuturik, xilora mugidu eban.*

Entzuten dozu?, prinzipitok esan eban. Urtegia izartu dogu ta osiña abes-lari da...

Itzi, utzi eidazu neuri, esan neutsan. Zuretzat astunegia da...

Kareleraño perrailua, goratu, jaso neban. Ondo tinkotu neban. Nire belarrietan xiroalak abesten jarraitzen eban, eta uretan, ondiño dardaraka zala, eguzkia dardaraka ikusi neban.

Ur onen egarria dot, prinzipitok esan eban. Edaten emoidazu...

Eta zer bilatu izan eban, ulertu neban.

Perraila bere espanetaraño jaso neban. Begiak ertsita edan eban. Jai alai bat bezela, dana polit ederra zan. Ura bizigai, bizigarria ez zan. Izarpean ibilialdiz sortua, xirrol abesti, nire besoen indar, alegiñakaz, sortua zan. Biotzarako guztiz onuragarria zan, bezuza, opari bat bezelakoa. Ni mutiko txiki bat nintzala, Gabon zugaitzaren argiak, gaberdiko mezako soifü ta irribarretxuen gozotasun, eztitasunak, artzen nebazan Gabon opariaren dirdiratze guztiak osotzen eben, kide ziran.

Zure lurraldean, prinzipitok esan eban, baratz bakar baten gizonak bost mila larrosa lantzen dabez... Eta bilatzen dabena ez dabe aurkitzen...

Ez dabe aurkitzen, erantsun neban.

Eta, alan ere, larrosa bakar baten edo ur apur baten, bilatzen dabena aurkitu al izan leiteke...

Ziurki, aurki, erantzun neban.

Eta jarraian prinzipitok iñoan:

Baiña begiak itsututa dira. Biotzagaz bilatzea bearrezkoa da.

Nik edan izan neban. Ondo arnasatzen neban. Area, egun sentian, ezti margodunekoa zan. Ezti margo orregaz be zorionsua sentitzen nintzan. Zergaitik naigabetu, mindutu izan bear neban ba?

Zure agintza, opa dozuna betetzea bear-bearrezkoa dozu, barriro nire alboan jezarririk, prinzipitok leunki, samurki, esan eustan.

Zein agintza?

Zuk dakizu... nire artxotxuarentzat mutur-ugel bat... Lora orren ardura-duna nazi!

Marrazki egin-gaiak sakeletik atera nebazan. Prinzipitok ikusirik, begiztatuz, barreka esan eban.

Zure baobas'ek aza-buru antz apur bat dabe...

Aaa!

Neure baobas'ekaz ain arro nintzan aui!

Zure'azeria... Belarriak... adarren antza dabe... eta luzagiak dira!

Ondiño barreka jarraitu eban.

Gizontxua, zuzengabekoa zará, nik boa-suge ertsia eta boa-suge idagiak uts utsean marrazkatzen nekiazan.

Aaa!, ondo dago!, esan eban. Umetxuak dakie. Muturreko bat ba, marrazkatu neban. Emon neutsanean biotz-estu sentitzen nintzan.

Ezagutzen ez dodazan egitamau, buruzpideak dozuz...

Erantzunik ez neban izan, eta esan eustan.

Ba dakizu, nire jauste nire Ludi, Mundua, oinperatzea... biar urte urrena izango da...

Geroago, ixilaldi baten ondoren, ondiño esan eban:

Emendik guztiz urbil, ur, jausi nintzan:

Eta lotsa-gorritu zan.

Eta barriro, ondoriorik jakin gabe, kezka bakan bat sentitzen neban. Kezka bakan bat nigaz jabetu zan. Alan ere itauntzea asmau neban:

Orduan, ezagutu zindudazan goizean, orain zortzi egun, bakar-bakarrik, biztandu lurralde guztietatik mila mile aldentuta, uste-gabe, alabearrez aldarrei bat bezela, ez zebiltzan. Zeure jauste tokirantz itzuliten ziñan?

Eta barriro prinzipito lotsatu zan.

Eta zalantzan, kezkatu, jarraitu neban:

Bear ba da urte urrena dala ta...?.

Barriro prinzipito lots-gorritu zan. Itaunak bere erantzunik iñoiz ez eben izaten, baiña bat lots-gorritzen danean, orrek baietz dala esan nai dau, ez? Ez da egia?.

Aaa!, esan neutsan. Bildur naz...

Baiña erantzun eustan.

Orain lan, bear egin bear dozu. Zeure tresna, tramankullura itzuli bear zara. Ementxe itxarongo zaitut. Biar arrastian itzuliko zara...

Baiña ni nasai-nasai ez nengoan. Azeri, lukia, neukan gogoan. Norberak menperatzea zilegiten ba dau, negar apur bat egiteko arriskuan izan leiteke...

## XXVI

Urtegi, osin, alboan arrizko orma zaar baten erauskiñak egozan. Biramon arrastian, lan, bearretik itzuli nintzanean urrunetik, asaotik, prinzipito an goian jazarrita bere iztarrak dindiliska ebazala ikusi neban. Eta bakar-izketan zala, iñoan.

Ez zara gogoratzen ba?, iñoan. Zuzen be, ementxe bertan ez dal.

Zalantza gabe beste abots batek erantzun eutsan, ba da berak jarraia iño-tsan:


Bai! Bai!... Eguna bai da, baiña tokia ementxe ez da...

Nire bidalian ormarantz jarraitu neban. Iñor entzun ez ikusi gabe jarraituz. Alan ere prinzipitok barriz iñotsan:

Zalantza barik. Nire lorratz, aztarnak areatan dauala asiera ikusiko dozu. Bertan niri itxarotea baño ez dozu. Gaur gabean bertan egongo naz.

Ormatik ogei bat metro aldenturik nintzan, eta ezertxu be ikusi barik jarraitzen neban.

Ixilaldi baten ondoren, prinzipitok esan eban.



*Orain, joan zaitez... esan eban. Barrero jaitsi gura dot!*

Pozoi ona daukazu? Luzaro ez nozula samin, minduko, ziur zara?  
Biotz-estuz gelditurik, uler-gabe jarraitzen neban.

Orain, joan zaitez... esan eban. Barrero jaitsi gura dot!.

Orduan neure begiak orma oiñarrirantz jaitsirik, jauzketa bat egin neban! An egoan, bertan, tinko, zutik prinzipito egoan tokirantz begira, pozoiturik, berak pozoiturik, ogeta amar segundotan ilten zaituenatariko suge ori, bellegi bat. Sakelean zipoleta bilatzen naben bitartean, ariñeketan asi nintzan, baiña egin neban ots, saratea entzutean, entzunik, sugea area artean ziri-ziri alden-tzen saiatuz, azkenerantz doan ur-zurutada lez, larregi leiakatu barik, metal-antzeko ots leun bat egiñik, arri artean limurtu zan.

Nire gizontxua, edurra aiña zurbil, nire besoetan artzeko une berean eldu nintzan.

Ze kondaira da au? Orain sugeakaz itz, berba, egiten dozu?.

Bere betiko, urrezko gorrotola lazatu. Baldokiak buzti neutsazan eta edan-azo neutsan. Itaun, galderarik egiten ez nintzan ausartu. Arduraz, zentzutasu-nez, begiratu eustan, ta bere besoekaz nire idun, samea inguratu eban. Txoritxu bat xizpaz sauriturik ilten dan bezela, bere biotz taupadak, sentitzen nebazan. Eta esan eustan:

Zure tresna, tramakulluak uts ebana aurkitu dozulako pozik naz. Zure etxe egoitzara itzuli al izango zara...

Zelan dakizu?

Naizta itxaropen osoa kaltegarria izan, nire lanean kausitze berezia izan dodala, jakin-erazten natorkizu.

Nire itauna erantzun gabe geraturik, jarraian iñoan:

Ni be, neu be, nirera, neure egoitzara itzuliko naz...

Gero goibel, iluntasunez:

Askoz be asaoago da... Askoz be zail, gaitzagoa da...

Zerbait arrigarri, izugarria jazoten zala, uste izan neban. Umetxu bat izango balitz bezela nire besoetan estutu neban, eta alan ere, amiltokirantz zuzen beera, eutsiteko ezer egin ezin nebala, limurtzen zala, uste izan neban...

Begiratzea goibel, urrunki guztiz asao neukan, neban:

Zure artxoa daukat. Eta artxoarentzat kutxatxua daukat. Eta muturrekoa daukat...

Istasun, goibeltasunez irribarretxu bat egin eban.

Luzaro itxaron neban. Apurka apurka berotzen nintzala nabaritu neban:

Gizontxu, bildurki izan zara?

Zalantza gabe, oso bildurturik nintzan. Baiña bigunki, samurki, barre egin neban.

Gaur gabean askoz be bildur geiago izango dot...

Barriro zerbait nai ta nai-ezko biotz-eragin, biotz-ukaldi baten ondorioz biotzkaturik nintzan, uzkurturik nabariten nintzen. Eta bere irribarretxuak sekula geiago ez nebazala entzungo gogoratzea ezingo nebala paraitu, jasan, nire buruan argi neban. Niretzat, basamortuan iturri bat bezelako, aifakoa zan.

Gizontxu... berriro zure barre otsa entzun nai dot...

Baiña esan eustan:

Gaur gabean, urtea beteko da. Nire izarbeltza, igaz jauzi nintzan toki berberatan aurkituko da...

Gizontxu, suge, deikun eta izarraren kondaira au, ames oker bat dala ez da egia?...

Baiña itauna barriro erantzun gabe geratu zan, eta esan eban:

Garrantzitsu dana ez da ikusten, ardura duna ez da ikusten, ez da nabaritzen...

Ziurki, bai aurki...

Loeagaz lez bardin da. Izar baten aurkitzen dan lora bat maite ba dozu, gabetan zerurantz begiratzean. Izar guztiak, danak, loraz beterik egoten dira.

Bai, aurki, ziurki.

Uragaz lez bardin.

Edaten emon daustazuna, soiñu, eresi bat aifakoa izan zan, xirola ta sokeagaitik... Gogoratzen zara?... Gozoa izan zan.

Ziurki, noski.

Gabetan izarrak begiratuko dozuz. Nirea non aurkitzen dan ezin dauzutsu erakutsi, nire etxea, nire egoitza, txikia dalako. Olan oba izango da. Zuretzat nire izarra, izarratariko bat izango da. Orduan izar guztiak begiratzea atsegin-garria izango jatsu... Danak zure adiskideak izango dira. Eta gero bezuza, opari bat emongo dauzutsu...

Barrero barre egin eban.

Aiii! gizontxu... gizontxu... Zure barre otsa entzutea atsegin jat!

Zuzen be, nire bezuza, oparia izango da... Uragaz lez bardin-bardin...

Zer esan gura dozuz?

Giza-taldeak, ber-berak ez diran izarrak eukiten dabez. Batzuentzat, txangolarientzat, gidariak dira. Beste batzuentzat argitxu, argi txiki batzuk utsean dira. Beste batzuentzat, jakitun diranak., arazoak dira. Nire garazle gizonarentzat, urrea ziran. Baiña izar guzti orreik ez dabe itz, berbarik egiten. Zuk sekula iñok euki ez dauzalako izarrak eukiko dozuz.

Zer esan gura dozuz?

Ortzi, zerura begiratzen dozunean, ni eurretari baten biziko nagan lez, nik eurretari baten barre egingo dodan ezker, zuretzat izar guztiak barreka egongo balitzakez lez izango da. Zuk barre egiten dakian izarrak eukiko dozuz!

Eta barrero barreka zan.

Eta poztu, nasaitu zaranean, poz-aldia beti lortzen da ta, ni ezagutzeaz, ni ezagutzea dala ta, atsegintsu izango zara. Nire adiskide bat izango zara. Nigaz barreka izateko nai, gurari bizi-bizia izango dozuz. Aldizka zure leioa idegiko dozuz, olan... atsegiñez... Eta zure adiskideak zu zerurantz barreka begiratzen ikusirik, arrituko dira. Orduan esango dautsezu: "Bai, izarrak beti barre eragiten dauste", eta eurak zorotuta zarala uste izango dabe. Zakur-joko zital bat egin izango neutsun...

Barrero barre egin eban.

Izar orde... txilin txiki barre egiten dakien pilo bat, emon ba neutsun bezela izango zan...

Barrero barreka zan. Ondoren oso goibel, borbost, geraturik:

Gaur gabe... Ba dakizu?... Ez zaitez etorri.

Zugandik ez naz aldenduko.

Oiñaze, minduta nazana irudituko da... Apur bat ilten nazala irudituko da.

Olan da. Ikusten ez zaitez etorri, ez dau merezi... Zugandik ez naz aldenduko.

Baiña urduri, kezkez zan.

Sugeagaitik be... ba dirautsutsu au. Aginka ez dauzutsu egin bear... Sugeak zitalak, gogo txarrekoak dira. Euren atsegiña lortze arren aginka egin leikje...

Zugandik ez naz aldenduko.

Baiña zerbaitek nasaitu eban.

Bigarren aginkadan pozoirik ez daukiela, egia da...

Gaba orretan, gau orretan, bidalian abiatzen ez neban ikusi. Ots, sarata barik aldendu zan, ixil ixilik aldendu zan. Atzitu lortu al izan nebanean, oinkada, urrats, oldarkoian bidalitzen zan. Eta auxe esan eustan, besterik ez eustan esan:

Aaa! Or zagoz...

Bere eskutik artu neban. Baiña, bere burua atsekabe, naigabetzen jarraitzen eban:

Txarto, gaizki, egin dozu. Neke, oiñazeak, izango dozuz. Il nazala irudituko da, eta egia ez da izango, guzurra izango da...

Ni ixilik nintzan.

Ulertu, aditzen dozu. Urrun, asaoegi da. Nire soin, gorputza, araña ezin dot eroan. Astunegia da.

Ni ixil-ixilik nintzan.

Azal, kozkol, zaar baztertu bat bezelakoa izango da. Azal, kozkol zaarrak goibelak ez dira.

Ni ixilik nintzan.

Apur bat uzkurtu, biotz-gabetu zan. Baiña ondiño alegin bat egin eban:

Ba dakizu? Atsegingarria izango da. Neuk be izarrak begiratuko dodaz. Izar guztiak, osiñak, xirol ugertu bateaz, izango dira. Izar danak edaten emongo dauste...

Ni ixilik jarraitzen neban.


Ain jostagarria izango da!. Bosteun miloi txilin eukiko dozuz eta bosteun miloe iturri eukiko dodaz...

Baiña bera be ixildu zan, negarrez zalako...

An da. Oinkada, urrats bat emoten zilegi eistazu, baiña neu bakarrik...

Baiña bildur izanik, jezarri zan.

Eta ondiño iñoan:



Ba dakizu?... Nire lorea...  
arduraduna naz. Ain aul, biguna  
da! Eta aintoles-gabea da!. Ludita-  
rrekandik babestu al izateko lau  
arantza kazkar, txatarrak dauz...


Jezarri nintzan, luzarago zutu-  
nik ezin nintzalako egon.

Prinzipitok, esan eban.

Ondo da... Ori da guztia,  
dana...

Unetxu bat zalantzan, ezbaian  
izanik, ondoren zutundu zan. Oin-  
kada bat emon eban. Ni ezin nin-  
tzan mugidu.

Bere orkatil ondoan, iñusturi ori,  
bellegi, bat baño ez egoan. Unetxu  
baten mugidu eziñik geratu zan. Ez  
eban oiurik egin. Zugaitz bat jauz-  
ten dan antzera, leunkiro jauzi zan.  
Areetan, aree artean, sarata, otsik  
be ez eban egin.



## XXVII

*Leunkiro jauzi zan, zugaitz bat jauzten dan bezela.*

Orain, ain zuzen be, sei urte  
joanak dira... Kondaira au iñoiz ez neban edestu. Aurkitu ninduen arronkide  
guztiak, danak, barriz ni bizirik ikusteaz, poztu, alaitu ziran. Goibel, itun, nin-  
tzan baiña iñotsen:

“Neke, akidura da...”

Orain apur bat poz, nasaituta naz. Au da... baiña ez guztiz, osoz. Baiña  
bere izarbeltzara itzuli zala, ziur-ziur naz, ba da egun-sentian bere gorputza  
ez neban aurkitu. Eta gorputz ain astuna ez zan... Gabetan, gauero, izarrak  
entzutea, atsegin izaten jat. Bosteun miloe txilin bezelakoa da...

Baiña ara emen, zerbait izugarri, arrigarria jazo zan. Prinzipitontzat  
marraztu neban narruzko muturrekoari ubela eratxekitea aitzu jatan. Iñoiz ez  
eban jarri al izango. Eta neure buruari itaundu neutsan: “Izarbeltzan zer jazo  
ete da? Bear ba da artoak lorea jango eban...”.

Sarritan neugan diñot: “Ziur-ziurki, ez! Gabero prinzipitok bere lorea bei-  
razko borobil baten-pean barneratzen dau eta bere artxoa ondo zaintzen  
dau...”. Orduan zoriontsu, atsegintsu izaten naz. Eta izar guztiak, danak,  
gozoro barreka izaten dira.

Sarritan neugan diñot: “Nozean bein bat adi-gaberatzen da, eta naikoa





izaten da!. Gau baten prinsipitok borobila aitzu eban, edo artxoak ixil-ixillik borobiletik urten zan...". Orduan txiliñak negar-malko biurtzen diral...

Zador aundi bat da. Zuontzat, prinsipito maite dozuontzat niretzat bezela, Mundu, Ludian, toki anbatan, ez dakigu non, ezagutzen ez dogun artxo batek larrosa bat jan ba dau, bai edo ez, ez da bardin-bardiña.

Ortzi, zerura, begiratu eizue. Itaundu eizue: artxoak, bai ala ez, lorea jan dau? Eta dana zelan aldatzen dan ikusiko dozue...

Sekula adiñeko gizaseme batek ulertu, adituko dau, ain garrantzitsua danik!

Au da, niretzat, ludiko lurralde ikuspegi polit ederr eta goibelena. Aurrerago marrazkian agertzen dan lurraldea da, baiña zuei erakutsi naian berrero marraztu dot. Ementxe, berton, toki onetan prinzipito Ludi, Munduan agertu, eta geroago bertan suntsitu, aldendu zan.

Egun anbatan Afrikatik txangolariek ba zarie, basamortuan ezagutuko dozuela ziurtasun osoa izan daizue. Arreta aundiz lurralde au begiratu. Eta bertatik igaroten ba zarie, ez zaiteze leiakatu, zuzen be izartxuaren be-bean unetxu labur bat itxaron, eskatzen dautsuet arren. Orduan umetxu bat zuekanantz eltzen ba da, barre egiten ba dau, urre margodun ulea ba dau, itauntzen dautsozuenean erantzuten ez ba dau, nor dan errez igarriko dozue. Orduan adikorrak izan zaiteze!. Ain goibel ez naizue jarri. Bereala idatzi eistazue. Prinzipito itzuli dala, esan eistazue...